

# LEITZA, ARESO, GOIZUETA eta ARANOKO BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEAREN BALANTZEA

2025ko urtarrila



**Gizarte Zerbitzuen  
Mankomunitatea**  
Leitza · Goizueta · Areso · Arano

**elhuyar**  
ezagutuz aldatzea

Laguntzaileak:



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua



# AURKIBIDEA

1. KOKAPENA .....	3
1.1 BERDINTASUN POLITIKEN ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN DENBORA LERROA LEITZA, ARESO, GOIZUETA ETA ARANON.....	4
1.2 MARKO ARAUTZAILEA.....	6
1.3 ERABILITAKO METODOLOGIA .....	10
1.4 ENTZUTE-ARIKETAREN EMAITZAK.....	12
2. PLANAREN EBALUAZIOA.....	15
2.1. PLANAREN DESKRIBAPENA .....	15
2.2 PLANA AURRERA ERAMATEKO EGITURAK eta BALIABIDEAK.....	18
2.3. PLANAREN BETETZE-MAILA.....	20
2.4 ONDORIOAK ETA IKASPENAK.....	27
3. GENERO-BERDINTASUNARI BURUZKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA .....	29
3.1 BIZTANLERIAREN INGURUKO DATU OROKORRAK ..	30
3.2 GENERO-ARRAKALAK EKONOMIAN .....	32
3.3 ZAINTZARAKO AUKERAK ETA BEHARRAK.....	34
3.4 EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA BIZITZA PUBLIKOAN.....	36
3.5 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA	37
3.6 GENERO-IKUSPEGIA LAGAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOAN.....	39
4. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK.....	46

## 1. KOKAPENA

2012an hasi zen mankomunitateko berdintasun politiken abentura instituzionala, urteetako mugimendu feministaren bultzadak lagunduta. Egun, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoren II. Berdintasun Plana baloratu, egungo beharrak aztertu eta norabide berri bati ekiteko prest gaude. Mendialdea mankomunitatetik Berdintasun politikak kudeatzea da asmoa, baliabide pertsonal eta material gehiagorekin.

Egindako bidea ez da makala izan 4.100 biztanlez osatutako mankomunitate honentzako, eta ezinezkoa izango litzateke kaleko eta landa eremuko herritarren bultzadarik gabe, batez ere mugimendu feministarekin izandako elkarlanik gabe.

Horregatik, mila esker bide luze honetan lagun izan diren guztiei, politika feministagoak egiteko bidean zuen laguntza izan dugulako.

Esku artean duzun txostenak Leitza, Areso, Goizuetan eta Aranoko berdintasun politiken ibilbidea jasotzen du eta lau zati edo ataletan dago banatua.

Lehen zatiak "kokapena" du izena. Bertan, berdintasun politikek izan duten norabidea ulertzeko lehenik mugimendu feministaren eta lau udalerrien artean egindako ibilbidearen laburpena jasotzen da. Berdintasun politiken marko arautzaileak eta txostena egiteko erabilitako metodologiaren inguruko azalpen bat aurkituko duzu lehen atalaren bigarren eta hirugarren azpi-ataletan. Azkenik, lau herrietako hainbat biztanlek berdintasun gaien inguruan dituzten iritziak jaso ditugu laugarren azpiatalean.

Txostenaren bigarren zatian 2018-2023 bitarteko iraunaldia izan duen II. Berdintasun Planaren ebaluazioa aurkituko dituzu. Atal hau Planaren deskribapen batekin hasten da, eta ondoren Planak jasotzen zituen ekintzen betetze-maila eta balorazio kualitatiboa ere bildu dira bertan. Azkenik, II. Planaren baloraziotik ateratako ikaspenak zerrendatzen dira 10 puntutan, hurrengo Planerako kontuan hartzeko modukoak.

Hirugarren zatian Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko emakume eta gizonen berdintasunari buruzko egoera aztertu da, zenbait datu eta elkarrizketetan oinarrituta. Hirugarren atalak sei azpiatal ditu: *biztanleriaren inguruko datuak, genero-arrakalak ekonomian, zaintzarako aukerak eta beharrak, emakume era gizonen presentzia bizitza publikoan, emakumeen aurkako indarkeria matxista eta genero-ikuspegia tokiko administrazioan.*

Azken zatian, laugarren atalean alegia, txostenaren ondorio nagusiak atera dira 11 erronketan banatuta.

Egindako bidea balioan jarri eta ikaspenak atera ahal izateko ondorengo orrietan jasotako informazioa biltzeak merezi izan du. Baina aurrera begira erronka handiak geratzen dira irekita oraindik. Balio beza hausnarketak bide-orri berriari ekiteko.

## 1.1 BERDINTASUN POLITIKEN ETA MUGIMENDU FEMINISTAREN DENBORA LERROA LEITZA, ARESO, GOIZUETA ETA ARANON

Ezin dira mankomunitateko berdintasun politikak ulertu bertako mugimendu feministaren ibilbidea kontuan izan gabe. Horregatik, txosten honek azertzen duen ibilbidea kokatzeko ezinbestekoa izan da mugimendu feministarekin eta urteetan udaletan egon diren ordezkariekin batera lan-saio bat egitea.

Mugimendu feministak ibilbide luzea du eskualdean. Txostenaren helburua 2018-2023 denbora tarteaz aztertzea izan bada ere, "denboraren lerroa" deitutako ariketa honetan momentu garrantzitsu gehiago jaso dira.



1. Irudia: *Berdintasun politiken eta mugimendu feministaren denbora-lerroa*

Aurretik eskualdean emakume antolatuak egongo baziren ere, ariketa honek 2000. urte hasierara eraman gaitu. XXI. mendearekin batera sartu zen indartsu mugimendu feminista eskualdean. Aipatu beharra dago 2001ean Euskal Herriko emakume abertzaleen I. Jardunaldi feministak egin zirela Leitza, 300 emakumetik gora elkartu zituena. Hamarkada horretan zehar antolatu ziren lehen ekimenak herri eragileetatik, eta Leitzaiko Bilgune Feminista ere sortu zen urte haietan.

2011-2015 legealdian kontratatu zen lehen aldiz Berdintasun teknikaria eskualdean, eta lehen lana, 2012an, berdintasunari buruzko diagnostikoa eta Plana egitea izan zen. **Lehenengo Berdintasun Planak 2013-2018 indarraldia izan zuen.**

Aurrez aipatu bezala, 2012an Sarrio Papeleran emakumeak kontratatzekeo kanpaina egin zuten LAB sindikatuak eta Bilgune Feministak. Urte horietan, Areson jada Emakumeen eguneko ekimenek, martxoaren 8koek pisua hartu zuten.

**2015-2019 legealdian indarkeria matxistaren kontrako protokoloa egin zen eskualdean, erantzun protokoloa.** Dokumentu horren bidez, mugimendu feministaren eta udalen artean adostu zen indarkeria matxistaren salaketa sozialak nola egingo ziren eskualdean.

**2016an Leitzaiko Emakumeen Asanblada sortu zen eta 2019tik aurrera Sastraka emakume taldea** ere sortu zen. Ekimen esanguratsuen artean daude: Emakume presoek aldeko martxa gartzelara, Greba feministen antolaketa 2018an eta 2019an, eta herri-mailako bestelako ekimenak.



## LEITZA, ARESO, GOIZUETA eta ARANOKO BERDINTASUN POLITIKEN IBILBIDEAREN BALANTZEA

2018 eta 2019 urteek, Goizuetan eta Aranon ere izan zuten eragin handia. **Goizuetan, egun dagoen emakume taldea sortu zen.** Urte haietan, lehen aldiz **Aranon azaroaren 25ean herri-mailan kalejira antolatu zuten**, konzentrazioan espero baina jende gehiago hartu baitzuen parte. Orduz geroztik, “betaurreko moreak” izeneko herriko sare-sozial taldea dute ekimen feministen berri izateko.

Mankomunitate mailan **2018-2023 II. Berdintasun Plana onartu zen** urte horietan, gaur egun arte lanerako tresna izan dena LAGAKo administrazioarentzat. Txosten honen lehen atalean jasotzen da planaren bidez urte hauetan guztietan egindako lana.

Plan honen jarraipenerako bi **Berdintasun Batzordeak sortu ziren 2019an (Leitza-Areso eta Goizueta-Arano).** **Batzordeetan** Berdintasun zinegotzi, teknikari eta mugimendu feministako kideek hartzen zuten parte. Areson 2023an batzorde propioa osatu zuten.

2020 urtean, aisialdi feministari ireki zitzaion atea: parranda feminista, erakusketa artelan feministen inguruan, eta aurrerago Señora bertso sariketa. **2021 urtean Lañaide neska gazteen taldea ere sortu zen.**

2022 urtean, mugimendu feminista eta udalarekin elkarlanean Zinegoak LGBTBI gaien inguruko pelikulak ekarri ziren. Bestetik, festetako batzordearekin elkarlanean abiatutako lanketek ere fruituak eman zituzten eta “Puntu more” profesionalizatuak kontratatzen hasi zen Leitzako Udalaren bidez. Urte horretan ere administrazio barruan indarkeria matxista kasuak kudeatzeko protokoloaren lanketa egin zen. Ariketa hau oso garrantzitsua izan zen lau herrietako arduradun politiko batzuek gaian formakuntza jasotzeko eta gizarte langileen eta beste arloen arteko koordinazioa hobetzeko.

**2023a urte garrantzitsua izan zen feminismoari dagokionez, lehen greba feminista orokorra egin baitzen,** zaintzak erdigunean jartzeko.



### *2. Irudia: Diagnostiko faseko lan-saio publiko 2024-11-22*

Egun, eskualdean badago mugimendu feminista, bai Goizueta herrian, bai Leitzan, baita institutuko neska gazteen artean ere. Horren adibide da **2024 urtean emakume baserritarrek bota zutela Leitzako festetako txupinazoa eta mugimendu feministak Goizuetako festetan,** edota Euskal Herri mailako Bollerren topaketak egin zirela Leitzan.

## 1.2 MARKO ARAUTZAILEA

**Emakumeen kontrako diskriminazioa** eta sexuen arteko berdintasunari buruzko mundu mailako lehen **testu arautzailea 1979an sortu zen** Nazio Batuen Erakundearen eskutik. CEDAW bezala ezaguna egin da, euskarara ekarria; *“Emakumearen aurkako bereizkeria mota guztiak ezabatzeko Konbentzioa”*.

Esplizituki azaldu zen bereizkeria mota “guziak” hitza. “Guziak” hitzak erreferentzia egiten die diskriminazio zuzenei, bai eta zeharkako diskriminazioei ere; hau da, esplizituki emakumeen kontrako neurria izan gabe, arau eta praktika batek bere ondorioetan sexu bereizkeria ekartzen duenari.

Gaur egun, emakumeen aurkako diskriminazio mota guztiak debekatzen dituzte bai Europako zuzentarauek, bai eta Estatukoek nahiz Nafarroako Foru Arauek ere.

Bereizkeria mota horiei aurre egiteko **“ekintza positiboan” beharra** jaso zuten arautegi haiek. Ekintza positiboa deitu zioten **espreski emakumei, hau da, desabantaila egoeran dauden kolektiboek zuzendutako neurri bereziak** ezartzeari.

Araugintzaren aldetik, **bigarren salto kualitatiboa 1995ean eman zuen Nazio Batuen Erakundeak** Beijingo “Emakumeen buruzko Konferentzian”. Bertan, sexuen arteko berdintasuna lortzeko, jarduketan publiko guzietan, eremu eta etapa guzietan, kontzienteki berdintasuna bulkatu behar zela ezarri zen: **“Genero-zeharkakotasunez”** lan egin beharra, edo *gender-mainstreaming* estrategia erabili beharra arautu zen. Estrategia hau bere egin zuen Europak 1998an, eta jarraian Estatuko eta Nafarroako Gobernuak ere hala jaso zuten.

Amaitzeko, ezin aipatu gabe utzi **“2030 Garapen Jasangarria Helburu”** deritzon NBEren dokumentua, 2015. urtean adostua. Bertan ezartzen da gizateriaren helburu nagusien artean **sexuen arteko berdintasuna eta emakume eta neskatilen ahalduntzea**. Emakumeen ahalduntzea, mundu mailako estrategia gisa, ezinbertzekoa baita desabantaila egoerei aurre egin ahal izateko.

**Nafarroako Gobernuak** 2019ko apirilaren 4an onartu zuen **17/2019 Foru Araua, emakume eta gizonen berdintasunari buruzkoa**. Bertan, emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko betebeharrak eta bide-orria ezarri zituen: bai Nafarroako administrazio publiko guzietan, bai eta kasu batzuetan, pertsona fisiko eta juridikoendako ere.

Honela, **Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko udalentsat aipagarrienak diren hiru artikulua** azpimarratu nahi izan ditugu ondoko lerroetan: 12. artikulua, Nafarroako toki entitateek, **tartean udalek, dituzten betebeharrak** ezartzen dituenak; 28. artikulua, **landa eremuko emakumeen ahalduntzearen** ingurukoa; eta azkena, hirugarren xedapenean jasotakoa, toki entitateei **Berdintasunerako Plan estrategiko bat izatearen betebeharra** jasotzen duena. Segidan jaso ditugu aipatutako arauak taula batean:

## 17/2019 FORU ARAUA, apirilaren 4koa, emakume eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa

### 12. artikulua. Nafarroako toki entitateak.

1. Toki entitateek beren eskumenak betetzean txertatuko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa, eta, horretarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarekin elkarlanean arituko dira.

2. Zeini bere lurralde-eremuan eta ordenamendu juridikoak emandako eskumenak betetz, toki entitateei eginkizun hauek dagozkie berdintasun arloko politiken gaian:

a) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko politikaren arloko helburuak eta jarraibideak ezartzea beraien lurraldean, Nafarroako Foru Komunitatearen politikekin koordinatuta.

b) Beraien jarduketa guztietan genero-ikuspegiaren zeharkakotasuna txertatzeko behar diren tresnak ezartzea.

c) Udal jardunaren eremu guztietan desparekotasuna eta diskriminazioak desagerrarazteko politikak gauzatzea.

d) Emakumeen gabeziak eta beharrak aztertu eta atzematea, foru lege honen helburuak betetzeko kasuko lurralde-eremuan.

e) Emakumeei arreta, informazioa eta orientabideak ematea eskura dituzten programa eta baliabideei buruz, beraien eskubideak egiaz erabil ditzaten laguntzeko.

f) Herritarrek sentsibilizatzea, balio aldaketa sustatuz, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzen laguntzeko.

g) Emakumeen autonomia pertsonala eta ekonomikoa sustatzea, emakumeen enplegua eta haien ahalduz pertsonala, kolektiboa eta soziala bultzatuz.

h) Emakumeen presentzia sustatzea parte hartzeko organoetan eta erabakiak hartzeko guneetan.

i) Emakumeen elkarteei eta talde feministei laguntzea, eta sustatzea parte har dezaten berdintasunaren eta genero-zeharkakotasunaren politikak diseinatzeko, egiten, garatzen eta ebaluatzen.

j) Estatistika eguneratuak izatea, toki entitateen jardun eremuetan emakumeek eta gizonen dituzten egoera desberdinen berri izateko bide ematen dutenak.

k) Ahaleginak egiten dira laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko tokiko baliabideak eta zerbitzuak ezarri eta egokitzeko.

l) Bermatzea, Nafarroako Gobernuarekin koordinatuta, teknikarien eta politikarien berariazko prestakuntza dagozkien eginkizunak bete ditzaten foru lege honek ezartzen duenari dagokionez.

3. Nafarroako Gobernuak, bere eskumenak betetz eta toki autonomiaren printzipio konstituzionala erabat errespetatuz, toki entitateei sostengua eta babesa emanen die, eta sustatuko du berdintasun teknikariak kontrata ditzaten, gutxienez ere Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak definitzen dituen hamabi eskualdeetan, lurralde osoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko xedeaz.

4. Nafarroako Gobernuak osatu behar du, kooperazioaren printzipioari jarraikiz, toki entitateen nahikotasun finantzarioa foru lege honek esleitzen dizkien eginkizunei dagokienez, ezertan galarazi gabe toki entitateek beren aurrekontuetan beharrezkoa den dirua jartzea eginkizun horiek finantzatzeko.

5. Toki entitateek genero-ikuspegia txertatuko dute beraien politika, programa eta ekintza administratibo guztietan, foru lege honetan ezartzen denari dagokionez eginkizunak garatu eta betetzeko langileak jartzea sustatuko dute, eta berdintasun ordenantzak egiten ahalko dituzte, apartatu honetan ezarritakoa jasotzeko.

6. Toki entitateek emakumeen eta gizonen arteko berdintasun planak ezartzen ahalko dituzte beraien lurralde-eremuan, eta, edozein kasutan, neurriak ezarriko dituzte emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko oztopoak kentzen joateko.

7. Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren bitartez, udal mailako eta udalez gaindiko toki entitateekiko koordinazio egitura bat ezarriko du foru lege honetan ezarritakoa betetzeko, zeina erregelamendu bidez garatuko baita.

8. Foru lege honetan ezarritako elkarlan, koordinazio eta lankidetzaren printzipio orokorra aplikatuz, toki entitateak koordinatuta arituko dira foru legean ezarritako eginkizunak betetzen elkarri laguntzeko.

## **28. artikulua. Landa ingurune emakumeak ahalduztea.**

1. Nafarroako Gobernuak genero-ikuspegia txertatuko du landa garapenerako jardueretan, eta bermatuko du esku-hartze horiek jasotzeko emakumeen beharrak; bidera dezatela emakumeek ekitatez parte hartu ahal izatea, osotasunez, landa garapenerako prozesuetan, eta ekarpena egin dezatela emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasun erreala lortzeko.

2. Nafarroako Foru Administrazioak zaindu beharko du emakumeek erabakiak hartzea despopulazioaren aurka borrokatzeko neurri gisa, landa-ingurunean duten presentzia eskasa eta eremu horretako pobretzea direla eta; zehazki, honako hau egin behar du:

a) Indartu behar du enplegua sortzen duten jardueren garapena, eta landa-ingurune emakumeak lan-eremuan sartzea errazten duten eta ingurune horren populazio galtzea saihesten laguntzen duten jardueren garapena.

b) Landa-ingurune emakumeek prestakuntza hartzeko modua izan dezaten erraztea.

c) Generoko eta lurraldeko arrakala digitala deuseztatzen laguntzea, landa-ingurune emakumeek informazioaren eta komunikazioaren teknologietarako sarbidea izatea errazten eta bultzatzen duten tresnekin.

d) Zaintzea landa-ingurune emakumeen parte-hartze sozial osoa lor dadin, eta enpresen eta elkarten zuzendaritza-organoetan osoko parte-hartzea izan dezaten.

e) Emakumeek eta gizonen nekazaritza-ustategietan titularkideak izan daitezela sustatzea.

f) Sustatzea emakumeek eta gizonen ordezkariak parekidea izan dezatela nekazaritza erakundeen erabakitzeko-organoetan.

g) Sentsibilizazio ekintzak sustatzea, landa-eremuko emakumeen lana ikusgai egiteko aukera ematen dutenak. h) Behar diren neurriak ezartzea landa-eremuko desberdintasunak lantzeko.

i) Emakumeen ekarpenak bultzatzea, klima-aldaketaren arloan.

3. Gainera, nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza-politiketan eta nekazaritzako elikagaien arlokoetan honako hauek egin beharko dira:

a) Emakumeek eremu horietan dituzten jakintza tradizionalen transmisioa sustatzea, eta aitortzea eta ikusgarri egitea familia-ustategien mantentzerako egiten duen ekarpena.

b) Hurbiltasunerako sareak eta gizarte zerbitzuen sareak sustatzea, hurrei, zaharrei eta mendetasuna duten pertsonen laguntzeko, landa-ingurune emakumeen eta gizonen laneko eta familiako bizitza eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko.

c) Emakume ekintzaileen enpresa-ekimenak eta emakumeek sustatutako nekazaritza- edo abeltzaintza-



*garapeneko jarduerak bultzatzea.*

*d) Erraztasunak ematea emakume gazteak nekazaritza-, abeltzaintza- edo basogintza sektoreetan eta nekazaritzako elikagaien sektorean sar daitezen.*

**Hirugarren xedapen gehigarria: 2. Puntua:**

...

*2. Foru lege honen 14. artikuluan aurreikusitako plan estrategikoa onartzen denetik urtebeteko epean, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren sektore publiko instituzionala osatzen duten erakunde eta entitateek beraien berdintasun planak onetsi beharko dituzte.*

## 1.3 ERABILITAKO METODOLOGIA

Partaidetzan eta hausnarketa kolektiboan oinarritutako metodologia erabili da azken urteetako Berdintasun politiken ibilbidea aztertzeko. Herritarren bizipenetatik, eta udalaren esperientzietatik abiatuta elkarlanean emaitza hobeak lortzea izan da helburua. Elkarren aitortza eta ezagutza, talde-hausnarketa eta talde-harremana bideratzeko prozesuak zabalitzea. Horrela, egitasmoak gizartearen beharren ikuspegi zabalagoa izatea bilatuko du, baita herritarren ahalduntzea, kasu honetan emakumeen ahalduntzean azpimarra jarritz.

Finean, demokrazian sakondu eta komunitateak indartzeko helburua dute metodologia hauek. Elhuyarren lan metodoa erabilia, 6 fasetan egin da prozesua:



**Askotariko ahotsak** entzuteko herritarrei irekitako bi lan saio egin dira. Bertan, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko herrietako berdintasun zinegotziek, mugimendu feministako kideek eta hainbat herritarrek hartu dute parte.

Saioetan herrietan emakume eta gizonen berdintasunari buruzko egoera zein den hausnartu da. Horrez gain, bileretan parte hartu dutenek egitasmoan dinamizatzaile rola hartu dute, eta bakoitzak bere herrian banakako hainbat elkarrizketa egin dituzte berdintasun politiken inguruko balorazio zabalago bat egin ahal izateko. Bide hau izan da “askotariko ahotsak” entzuteko pausoa.

**Baliabideak baloratzeari dagokionez**, Berdintasun teknikariari egindako elkarrizketa ezinbestekoa izan da egindako ibilbidearen balorazioa egiteko. Bestetik, arduradun politikoekin, hau da, alkateekin eta berdintasun zinegotziekin ere elkarrizketak egin dira. Azkenik, udal idazkariekin genero-ikuspegia administrazioaren jardura eta prozeduretan txertatzeko egindako bidea eta dauden aukerak baloratzeko bilerak egin dira.

**Ideiak eraikitzeko espazioak sortu dira** aupatutako bileretan, eta horren emaitza dira txostenean azken atalean jasotako aurrera begirako erronkak.

**Plan berri baten diseinua litzateke prototipo berri bat sortzea, eta esperimentatzea.** Baina une honetan ezin izan zaio bide horri heldu, oraindik ez dagoelako Berdintasun Zerbitzu berria eraikia.

Hala ere, azken pausora indartsu iritsi gara, **sistematizaziora**. Txosten honetan jasotzen da azken sei urteetan Leitza, Areso, Arano eta Goizuetan egindako bidea, hau da, egindako bidea sistematizatzekeo tresna da azken txosten hau.

Prozesuan parte hartu duten 58 pertsonen inguruko datuak:

	EMAKUMEAK	GIZONAK	GUZTIRA
<b>HERRITARRAK</b>	6	1	7
<b>UDAL ORDEZKARIAK</b>	5	3	8
<b>ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK</b>	4	1	5
<b>ELKARRIZKETATUTAKO HERRITARRAK</b>	28	10	38

	UDAL ORDEZKARIAK	ADMINISTRAZIOKO LANGILEAK	ELKARRIZKETATUAK
<b>LEITZA</b>	2	1	18
<b>ARESO</b>	1	1	8
<b>GOIZUETA</b>	2	1	6
<b>ARANO</b>	2	1	6

## 1.4 ENTZUTE-ARIKETAREN EMAITZAK

Dinamizatzailleek 4 herrietan bizi diren hainbat pertsona elkarrizketatu dituzte prozesurako prestatu den gidoi baten bidez. Elkarrizketak aurrez aurrekoak izan dira, harreman pertsonalei garrantzia eman zaiolako. Horietako batzuk banakako elkarrizketak izan dira, eta beste batzuk taldekakoak.

Orotara 38 pertsona elkarrizketatu dira:

Lau galdera multzo egin zaizkie elkarrizketatuei:

1. Bertintasuna sustatzeko ekimenetatik zeintzuk sortu duten ilusioa eta aurrera jarraitzeko gogoia.
2. Herriaren egoera bertintasun ikuspegitik, 1-10 eskalan baloratzeko eskatu zaie, hainbat itemetan oinarrituta
3. Azkenik, Bertintasun politiketan lantzen diren gaiak 1-10 eskalan baloratzeko eskatu zaie.
4. Bertintasun politikei dagokionez, zer hartu behar den kontutan edo zer dagoen hobetzeko.

LEITZA, ARESO, GOIZUETA ETA ARANO BERTINTASUNERA ELKARREKIN


### BERTINTASUNERA ELKARREKIN IRISTEKO EGITASMOA

Gidoi hau Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko bertintasun politikaren norabidea berriketatzeko elkarrizketak izateko tresna da. Bertintasun politikak 2012az geroztik lantzen gabiltza udaletatik eta mankomunitatetik. Baina ezingo genuke norabide egokia asmatu herriarrek entzun gabe, eta mugimendu feministaren bultzada gabe. Horregatik, egindako bidez hausartu eta aurrera begirako erronkak identifikatzeko mugimendu feministak eta herriarrek elkarrizketatzea da asmoa, elkarrekin bertintasunerako bide egokia bilatzeko.

**AZKENEKO URTEETAN EGINDAKOAK BALORATZEA**

1. Azken urteetan gure eskualdean egin den zain ekimen, gertaera edo jardura datorkizu gogora omakume eta gizonen bertintasuna eta genero-berdizkeriei aurre egiten helburu izan zutenak?
2. Zertan asmatu da eta zer dago hobetzeko bertintasun politiket dagokionez gure udallean edo eskualdean?
3. Nolako jardura edo ekimenak sustatu beharke listako gehiago zure ustez? Non daude erronka nagusiak herrian eta eskualdean bertintasunari dagokionez?

ethuyar<sup>2</sup>



Adin tarte guztietako pertsonak izan dira, 25 urtetik beherakoak eta 70 urtetik gorakoak barne. Ondorengo orrian ikus daitezke elkarrizketen bidez jaso diren emaitzak.

## 1. HERRIETAN ILUSIOA SORTU DUTEN EKIMENAK

Zerrenda luzea da: *Emakume taldea sortu izana, emakumeekin denbora konpartitzea, afari-meriendak berdintasun gaien inguruan, dokumentalak-antzerkiak eta kultur jarduerak berdintasunaren bueltan, indarkeriaren kontrako protestak, martxoaren 8a, greba feminista, guraso eta hurrekin egindako tailerrak, antzerki tailerra, Yoga emakume migratuekin, kirol ikuskizunetan emakumeak egotea, festen pregoian emakumeei egindako omenaldiak, mugimendu feministaren ekimenak...*

## 2. HERRIEN EGOERA EMAKUME ETA GIZONEN IKUSPEGITIK

GAIK BATEZBESTE-KOA	Kultur eskaintza	Garraioa eta espazio publikoa	Hezkidetz, hezkuntza eta gazteria	Kirola/jarduerak- fisikoa	Enplegu aukerak	Zaintza beharrak eta aukerak	Udalan genero ikuspegia txertatzea	Emakumeen kontzientziazioa	Indarkeria matxista	Gizartearen inplikazioa
	6,3125	6,125	6,3125	6,3125	5,4375	4,5625	5,875	5,5625	5,75	5,5
MEDIANA	6	6	6,5	7	6	5	7	6	6	6
MODA	6	6	6	7	6	5	7	7	6	7

Aipatzekoa da okarren baloratzen den arloa "zaintzaren" gaia dela, eta beraz, lanketa gehien behar dena eskualdean.

## 3. BERDINTASUN POLITIKETAN LANTZEN DIREN GAIEN GARRANTZIA

GAIK BATEZBESTE-KOA	Ahalduntze tailerrak	Mugimendu feministarekin elkarlana	Zaintza zerbitzuak hobetzea	Zaintzaileen egoezko hobetzea	Haur eta nerabeezkin lanketak	Emakumeen ekarpenak balioan	LGTBI+ gaiak	Indarkeria matxista prebentzioa	Indarkeria matxista erreparazioa	Gizartearen inplikazio sentsibilizazioa	Balabideak udaldira
	7,8125	8,4375	8,5625	8,375	8,4375	7,6875	7,5	8,1875	8,25	7,5	7,875
MEDIANA	8	9	9	9	9	8	9	9	9	8,5	9
MODA	10	10	10	9	10	10	10	10	10	10	10

Orokorrean gai guztiak hartu dira garrantzitsutzat. Berritoki ere, zaintzaren gaia jotzen da garrantzitsutzat galdera honetan, baina baita mugimendu feministarekin eta gazteriarekin lanketak egitea ere.



#### 4. KONTUAN HARTZEKOAK EDO HOBETZEKOAK

Azkenik, elkarrizketen bidez, berdintasun politikak hobetzeko herritarrek egin dituzten ekarpenak jaso dira. Hauek izan dira jasotako ekarpenak (multzokatu ditugu zerrenda laburtzeko):

- *Beti jende bera topatu ohi da, herritarrengana gehiago iristea, sentsibilizazioa lantzea, mugimendu gehiago sortzea herrietan.*
- *Gizonen falta dago berdintasun gaietan, maskulinitatea lantzeko beharra dago, gizonak zein eratan egin dezaketen ekarpena. Mutil gazteekin lanketak beste modu batera egiteko beharra, berdintasunaren eta feminismoaren kontrako gero eta jarrera gehiago sumatzen baitira.*
- *Zaintzaren gaia lantzea ezinbestekoa da: karga mentala, etxeko lanen banaketa, zaintzaileen egoera, pertsonen zaintzak suposatzen duen lan-karga ikusarazi eta hobeto banatzeko proposamenak...*
- *Mugimendu feministaren bultzada ezinbestekoa da herri txikiak berdintasun politiketarako, eta udalekin elkarlanean aritzea ezinbestekoa da.*
- *Kulturartekotasuna lantzea, beste kulturek nola bizi duten berdintasuna, nola ikusten ditugun guk beste kulturetako emakume eta gizonak... migrazioaren gaia lantzea, emakume migratuekin lan egitea.*
- *Nerabe eta gazteekin lan egiteko beharra. Familiekin. Adin-tarte guztiekin ezin da berdina lan egin. Emakume helduentzako lanketa berezituak eskaini.*
- *Herri txikien egoera kontuan izan, berdintasun gaiak herrien beharretara egokitu eta herri guztietara iritsiko direla ziurtatu. Kontuz ibili Larraun eta Lekunberrirekin elkartzean, lanketek herri guztien erritmoetara egokitzeko gaitasuna izan dezaten. Kontuan hartu behar da landa eremuko emakumeen egoera.*
- *Lesbiana, gay eta transexualen errealitateen inguruan ez da gehiegi lantzen. Oro har, jarrera positiboa dela ematen du, baina gaia landu behar da hala ere.*
- *Emakumeen ahalduntzeari garrantzia eman behar zaio, autodefentsari. Saretzea eta antolatzea.*
- *Berdintasuna ez da egun batetik bestera etorriko, pazientzia eta jarraikortasuna beharko da.*



3. Irudia: Elkarrizketetan parte hartu duten herritar batzuk

## 2. PLANAREN EBALUAZIOA

### 2.1. PLANAREN DESKRIBAPENA

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko udalen emakume eta gizonen berdintasunerako **II. Plana 2018an onartu zen** Gizarte Zerbitzuetako mankomunitatean. Plan horrek 2023 bitarteko iraunaldia zuen.

Lau esku-hartze eremuetan zegoen banatuta. Horrez gain, 10 ildo estrategiko, 25 helburu edo programa eta 81 jarduketa zituen aurreikusita. Hau zuen eskema orokorra:

ESKU-HARTZE EREMUAK	ILDO ESTRATEGIKOAK
<b>1. TOKIKO GOBERNAMENDUA ETA GENERO-ZEHARKAKOTASUNA</b>	<b>GENERO BERDINTASUNERAKO UDAL EGITURAK</b>
	<b>TREBAKUNTZA TEKNIKO ETA POLITIKOA GENERO-MAINSTREAMINGAREN ESTRATEGIA TXERATZEKO TOKIKO ENTITATEAN</b>
	<b>UDALEKO LAN-PROZEDURAK EMAKUMEEN ETA GIZONEN TRATU ETA AUKERA BERDINTASUNERAKO PRINTZPIOAREN ARABERA</b>
	<b>GENERO-BERDINTASUNA UDAL ETA/EDO ESKUALDEAREN GARAPEN IRAUNKORRAREN ALDERDIETAKO BAT DEN ALDETIK</b>
<b>2. EMAKUMEEN AURKAKO INDAKRIA</b>	<b>EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA TOKIKO ENTITATEETAN</b>
	<b>INDARKERIARIK GABEKO BIZITZA EMAKUMEENDAKO</b>
<b>3. ZAINZTA, ERANTZUNKIDETASUNA ETA EGINKIZUNAK BETETZEA</b>	<b>HERRITARREN ONGIZATEA ETA BIZI-KALITATEA, ZAINZAREN ETIKA GARATUZ, EMAKUMEEN ETA GIZONAK LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA ERANTZUNKIDETASUNEZ BATERATUZ</b>
	<b>DENBORAK, ESPAZIOAK ETA ZAINZAK KUDEATZEKO EREDU BERRIAK TOKI ENTITATEETAN</b>
<b>4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA, PARTE-HARTZE SOZIOPOLITIKOA ETA BALIOEN ALDAKETA</b>	<b>EMAKUMEEN HERRITARTASUN OSOA NORBERAREN AHALDUNTZEAREN BIDEZ</b>
	<b>EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNAREN BALIO SOZIALA, PATRIARKATUAREN BALIO SOZIALAK ERALDATUZ</b>

Helburu bakoitzei lotutako jarduketekopuruak azaltzen dira jarraian dagoen taulan:

PROGRAMA-HELBURUA	JARDUKETA
1.1. Genero berdintasunerako Udal arloak eta unitateak	3
1.2. Prestakuntza berezitua genero-mainstreaming-a edo genero-ikuspegi integratua txertatzeko	2
1.3. Genero-ikuspegia udal araudiak prestatzean, baita Toki Entitatean garrantzi eta eragin berezia duten plan. programa eta proiektuetan ere	4
1.4. Plangintza eta aurrekontuen ebaluaketa	3
1.5. Genero-ikuspegia txertatzea langileen kudeaketan.	4
1.6. Informazioaren kudeaketa eta komunikazio-politika	3
1.7. Kontratazioa, diru-laguntzak eta hitzarmenak	3
1.8. Emakumeen eta gizonen partaidetza eta ordezkariak orekatu.	2
1.9. Eskualde edo udalerraren genero-azterketa sozioekonomikoa.	1
1.10. Genero-ikuspegia eskualdearen garapen iraunkorrerako garrantzizkoak diren proiektu, plan eta jarduketetan	1
1.11. Emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza eskualdearen baliabide eta zerbitzuetan	3
2.1. Udaleko eta/edo eskualdeko baliabideak koordinatzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan, eta Toki Entitatean emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, arretarako eta gaiari hobeki heltzeko hobetu beharreko esparruak hautematea.	3
2.2. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloan lan egiten duten mankomunitatearen langileria eta udal langileen trebakuntza	2
2.3. Emakumeen aurkako indarkeriaren arloari aurre egiteko udaleko eta udalez gaindikoko baliabideak hurbiltzea, eta eskualdean horien berri ematen dela ziurtatzea, baita emakumeengana iristen eta genero-indarkeriaren arloko arazoak dituzten herritarrei egokitzen zaizkiela ere.	5
2.4. Herritarren prebentzioa eta sensibilizazioa emakumeen aurkako indarkeriaren arloan	5

2.5. Udalerriaren eta/edo eskualdearen errealitateei egokituriko txosten, azteketa eta ikerlanak, genero-indarkeria hobeki aztertzen lagungarriak direnak	2
2.6. Toki Entitatea, genero-indarkeria deuseztatzeko programa eta proiektuen sustatzaile izan	1
3.1. Zaintzaren Etika, eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea udalerrian edo eskualdean	1
3.2. Udalerriaren edo eskualdearen lan-plangintza Zaintzaren Etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea sustatzeko	5
3.3. Jendea zaintzeko lanen kudeaketa udalerriko edo eskualdeko jardunean	3
3.4. Jarduketa berritzaileak Zaintzaren Etika eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzea garatu eta sendotzeko	1
4.1. Emakumeen norbanako ahalduntzea	6
4.2. Emakumeen ahalduntze kolektiboa	10
4.3. Emakumeen ahalduntzea eta parte hartze sozio- politikoa	4
4.4. Genero-estereotipoak eta norbanakoei esleitzen zaizkien rolak sexuaren arabera	3

Jarduketa edo ekintza bakoitzak bere adierazlea eta arduraduna zuen aurreikusia. Horrez gain, sei urteko epealdian barrena ekintza bakoitzaren tenporizazioa ere jasotzen zuen II. Planak.

Plana garatzeko, Gizarte Zerbitzuen mankomunitatean kokatutako jardun erdiko berdintasun teknikari bat aritu da lanean.

Dokumentu orijinalean ikus daitekeen bezala sei urteko plangintza zabala izan da, aurrerakoia, gai berritzaileak jaso dituena eta anbizioso. Baina mankomunitateak zituen baliabideekin Plana osorik garatzea ezinezkoa izan da. Hala ere aurrerapenak egin dira hurrengo atalean ikusiko dugun bezala.

## 2.2 PLANA AURRERA ERAMATEKO EGITURAK eta BALIABIDEAK

Berdintasunerako plana garatzeko hainbat baliabide behar direla jakina da: koordinazio egiturak, aurrekontua eta plana garatuko duen teknikaria, nagusiki. Sei urteko iraupena izan duen plan hau garatzeko hainbat egitura zeuden aurreikusita planean, baina egokitzen joan dira mankomunitateko beharretara.

1. **Berdintasun Batzordeak:** LAGA mankomunitateko lau herrietan egon dira Berdintasun Batzordeak. Bertan, berdintasun zinegotziak eta teknikariak, herri eragileak eta teknikariren batek hartu izan du parte. Leitza, Goizueta eta Areson funtzionatu dute gehien bat. Lau hilean behin elkartu dira, urtean hiru bat aldiz. Beren zeregina urteko plangintzak herrien beharretara egokitzea izan da.
2. **Berdintasun politikak koordinatzeko mahai-teknikoa:** Bertan mankomunitateko hainbat teknikarik eta udaletako teknikariek hartu dute parte, batez ere gai sozialetakoek. Asmoa urtean bitan elkartzea zen, Berdintasun politikak zeharkakotasunaren estrategiarekin arlo guztien bultzadarekin aurrera eramateko. Espazio hau 2023an jarri da martxan.
3. **Eraso sexistei aurre egiteko mahaia:** Festen aurretik herri eragile, mugimendu feminista eta berdintasun zerbitzuaren artean martxan jarri den espazioa izan da. Uda aurretik eta udan zehar bildu izan da festen testuinguruan ematen diren erasoen kontrako protokoloak definitu eta sentsibilizazio kanpaina bateratuak egiteko. Batez ere Leitza eta Goizuetan funtzionatu dute.
4. **Indarkeria matxista kasuen kudeaketarako erakundeen arteko protokoloa.** Protokolo hau 2023an diseinatu da. Berez, protokoloaren jarraipenerako mahaia osatzea zen asmoa, baina oraindik ez da martxan jarri.

COORDINAZIO EGITURAK	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Berdintasun batzordeak	2	2	2	2	2	3
Koordinaziorako mahai teknikoa	0	0	0	0	0	1
Eraso sexistei aurre egiteko mahaia	8	8	8	8	8	8
Protokoloarena ez	0	0	0	0	0	0

Espazio hauetaz gain, falta bota da administrazioaren jardueran genero-ikuspegia txertatzeko espazio propio bat, udalen eta erakundeen egiteko moduetan eragiteko espazio eraginkorrago bat, udal idazkariak eta arduradun politikoak gehiago inplikatu dituen erakundearen eraldaketan, hau da genero-zeharkakotasunaren estrategian.



Giza baliabideei dagokionez, orain arte jardun erdi bat aritu da mankomunitatean berdintasun teknikari moduan, Planaren sustapena, koordinazioa, garapena eta ebaluazioa egiteko.

Egun salto kualitatibo bat eman nahi du mankomunitateak. Gizarte Zerbitzuen mankomunitatetik kudeatu beharrean, Mendialdea mankomunitatetik kudeatuko da. Herri gehiagori erantzun beharko zaion arren, jarduna ere bikoiztu egingo da, teknikari osoa jarriko baita zeregin horretarako.


### 2.3. PLANAREN BETETZE-MAILA

Aurreko atalean esan bezala, Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko Berdintasun planak 81 ekintza zituen aurreikusita 4 esku-hartzetan banatuta.

Pisu gehien zuen esku-hartze arloa, ohikoa den bezala, “Tokiko gobernamendua eta genero-zeharkakotasuna” izan da 30 ekintzarekin, planaren % 37a izan da. Garrantzia gehien izan duten beste bi ardatzak “Emakumeen ahalduntzea” (23 ekintzekin) eta “Emakumeen aurkako indarkeria” izan dira (18 ekintzekin). Zaintzaren inguruko esku-hartzea izan da pisu gutxien izan duena, 10 ekintzekin, planaren % 12a.

Beheko diagraman ikusten da bakoitzaren pisua.

#### ESKU-HARTZE BAKOITZAREN PISUA PLANEAN




Ekintzen betetze mailari dagokionez, Planaren % 33a bete dela esan dezakegu, eta beste 19a erdizka egin dela. Horrela, Planaren herena geratu da garatu gabe. Planaren osotasuna ez betetzeak ez du esan nahi helburuak bete ez direnik. Askotan ekintzak garatzeak ez ditu helburuak ziurtatzen, eta beste batzuetan, aurreikusita zeuden ekintza batzuk garatu ez arren, helburuetara iristeko aukerak egon dira.

Planaren pisua edo zama, gehien bat Berdintasun Zerbitzuak eraman du. Nahiz eta teoriarik Berdintasun Plana mankomunitate osoarena izan, eta ekintza bakoitzak arduradunak eduki, plana ez da gehiegi erabili gainontzeko zerbitzu eta arloetan.

Hala ere, koordinazio teknikorako mahaiaren bidez zenbait lan banatzeko aukera egon da, batez ere, Gizarte Zerbitzuekin, Kirola eta Kulturarekin.


### PLANAREN BETETZE-MAILA

EGINDA ERDIZKA EZ DA HASI EGOKITUTA




Aipatzeko da ere egokitu behar izan diren ekintzen kopurua, 12 bat ekintza. Izan ere, II. Bertintasun Planeko zenbait ekintza ez zeunden mankomunitatearen logikara eginda, edota ekintzaren definizio-maila zehatzak tokiko eta momentuko beharretara egokitzea zaildu du. Lau arloetan egon dira egokitu behar izan diren ekintzak.

Jarraian jaso den grafikoan esku-hartze arlo bakoitzean izandako betetze-maila ikus daiteke. Egokitzeko beharra, batez ere lehenengo arloan egon da.



## Esku-hartzez esku-hartzeko analisia:

### 1. TOKIKO GOBERNAMENDUA



Lehen esku-hartze honen bidez, LAGA mankomunitateko eta bere udaletako egiteko modu eta jardueretan genero-ikuspegia txertatzea izan da helburua.

Berdintasun Saila Gizarte Zerbitzuetan, eta mankomunitate mailan kokatua egoteak lan ildo hau garatzeko zailtasunak ekarri ditu.

Udal ordezkariekin elkarlana egon arren, Udal bakoitzaren politika espezifikoetan genero-ikuspegia txertatzea ez da erraz< izan.

Hala ere, lanketa puntualak egin dira hainbat arloekin, eta udaletako arlo batzuk Berdintasun Zerbitzura jo dute genero ikuspegia beren jardueran txertatzeko aholku eske. Esaterako, CEDERNA-GARALURren behatokian elkarlana egon da. Festetan eta kultur ekitaldietan, oro har, emakumeen presentzia bermatzeko lanketak egin dira kontratazio publikoaren bitartez. Prebentzio arloarekin, gabon guztietan jostailu ez sexistak sustatzeko kanpaina egin da. Bestetik, Leitzako parke baten diseinuan eta Gizarteratze programarekin ere elkarlana egon da genero ikuspegia txertatzeko bestelako programetan.

Sexu-bereizkeriak identifikatzeko datuak sexuaren arabera sailkatzea zen Planean jasotako beste erronketako bat. Pauso horrek ahalbideratzen du bereizkerien kontrako neurri zuzentzaileak modu informatuan hartu ahal izateko aukera, baita genero eraginaren aurretiazko ebaluaketak egin ahal izatea ere. Zenbait arlok datuak bereiztuta jasotzen dituzte (Gizarte Zerbitzuak, Kirola...) eta irakurketak egin izan dituzte. Beste askok, ordea, ez dute egiten.


Bestetik, kontratazio publikoan genero-ikuspegia txertatzea eta berdintasun klausulak barneratzea ez da sistematikoki egin, nahiz eta inplikazio politikoa egon zenbait kontratuetan. Hala ere, arlo honetan pausoak eman direla esan daiteke.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexistari dagokionez, espezifikoki langileentzako trebakuntzarik egin ez den arren, jarraibide edo gida bat bai sortu eta banatu dela.

Arlo honetan emandako pauso esanguratsuenak dira, esaterako, ordezkari politikoekin, legegintzaldi hasiera guztietan berdintasunari buruzko 8 orduko prestakuntza eskaintzea. Edo beste ekintza esanguratsu bat, Berdintasun Batzordeak herrietan sortu eta elkarlanerako tresnak izatea.

Egindako bidea kontuan hartuta eta tokiko administrazioetan eragiteko gaitasun urriaz kontziente izanda erabaki da 2025etik aurrera jardun osoan berdintasun teknikari bat kontratatzea.

## 2. EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA



Emakumeen aurkako indarkeriaren esku-hartzean lan handia egin da. Gainera, Bertintasun Zerbitzua Gizarte Zerbitzuen espazio berean egoteak elkarlanerako aukera handiak eman ditu.

Prebentzio lanak, protokoloak, lanaren antolamendurako prozedurak, formakuntza eta elkarlana egin da.

Bestetik, ikastetxeekin prebentzio lana egin da: bideoak sortu dira ikasleekin

batera, eta zenbait tailer ere antolatu dira institutuan.

Arlo honetan mugimendu feministarekin ere elkarlana egon da. Kanpaina zehatzak sortu dira, uda garairako, jai guneetarako edota egun berezietarako, azaroaren 25a kasu.

Prestakuntza jaso dute zenbait udal ordezkari indarkeria matxista kasuen salaketa publikorako protokoloak diseinatu direnean.

Garatu gabe geratu den neurri garrantzitsuetako bat indarkeria matxista kasuen protokoloari jarraipena egiteko mahaia sortzea izan da. Erronka hau egin gabe geratu da, baina aurrera begira ezinbesteko markoa izango dela aurreikusten da.



4. Irudia: Protokoloa [on-line](#) dago




AZAROAK 25
EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA
<b>ARANOKO</b>
ELKARRERATZEA Ordua: 19:00 Antolatzailea: Udala
<b>ARESO</b>
ELKARRERATZEA Ordua: 19:00 Lekua: Plaza zaharra Antolatzailea: Udala
<b>GOIZUETA</b>
Morea jantzi ita bakoiak morea apuritzeko eguna.
<b>LEITZA</b>
ELKARRERATZEA "Sistema honetan elkar zaintzea errodikale dutela, AITDFFFFITA FEMINISTA!" Ordua: 19:00 Tokia: Plaza Antolatzailea: Leitzako Lehiakel.
AZAROAK 25
<b>ALAMA MOREA</b> Kontzertua. Errunba flamenko feministak. Ordua: 19:00 Lekua: Goizuetako Gegetena Antolatzailea: Goizuetako Kultur taldea
AZAROAK 27
<b>IKLUDITAKO ISTORIOAK.</b> Haurrentzako (guzin kontalari musikatuak. Ordua: 17:00 Lekua: Erleku eskolako jantokia (Leitza). Antolatzailea: Bertintasun Batzordea.
<b>MUNDUKO EMAKUMESAK.</b> Inklusibitateko (guzin kontalari musikatuak. Ordua: 19:00 Lekua: Torrea laberna (Leitza). Antolatzailea: Bertintasun Batzordea.

Azkenik, azpimarragarria da mugimendu feministarekin batera garatu zen ekimen bat: Leitza eta Aresoko emakumeei zabaldutako galdetegia bakoitzak bizi izandako indarkeria matxistaren inguruan. Bertatik jasotako erantzunekin lanketa asko egin ahal izan ziren: hitzaldiak eta emaitzak zabaltzeko bideoa, besteak beste. Ondoren, emaitzak zabaltzeko bideoa, besteak beste. Ondoren, emaitzak zabaltzeko bideoa, besteak beste. Ondoren, emaitzak zabaltzeko bideoa, besteak beste.



### 3. ZAINZA ERANTZUNKIDETASUNA ETA EGINKIZUNAK BETETZEA



Hirugarren esku-hartzea, “Zaintza erantzunkidetasuna eta eginkizunak betetzea” izenekoa, maila handian bete da. Arloen artean Planean pisu gutxien zuena da, 10 ekintza baitzeuden aurreikusita soilik 6 urteetarako.

Pertsonen zaintzarako zerbitzu gehiago sortu edo handitzea zuen helburu planak. Hau ez da lortu, baina

bestelako kontzientziazio eta sentsibilizazio lanak egin dira.

Aipatzekoak dira, zerbitzuez ari garela, Jubilotekak. Zerbitzu garrantzitsua dira, batez ere, herri txikienetara iristeko aukera ematen duelako. Programa hau herrietan egon ohi den espazio polibalentean egin ohi dira, bestelako kirol eta kultur jarduerak bezala.


Bestetik, sentsibilizazioan eta gaiari zentralitatea eman da. Azpimarratzekoa da ildo honetan mugimendu feministarekin lanketak egin direla, hala nola, azaroaren 30eko greba feministaren harira egindakoak.

Ezin esan gabe utzi 2019an LAGako mankomunitateak Kalitatearen XII: saria jaso zuela, Nafarroako Gizarte Zerbitzuen artean banatzen dutena, “Zaintzen herria” proiektuagatik. Proiektu hau, gehien bat mankomunitateko eragile sozialen inplikazioari esker bultzatu ahal izan da.



Azkenik, Zaintza beharren eta zerbitzuen inguruko diagnostiko txiki bat egin da azken urteetan baita diagnostikoaren ondorioak zabaldu ere.

#### 4. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA



Emakumeen ahalduntzeari dagokionez, esan beharra dago abiapuntua ez dela txarra izan.

Herri guztietan sortu da Aranon izan ezin Berdintasun Batzordea mugimendu feminista eta udal ordezkariak sostengatuta. Hau da, badago masa kritiko feminista bat, beraz ahalduntze politikora salto

eman duten emakume ugari daude mankomunitatean.

Horrez gain, norbanakoen kontzientziazioa eta emakumeen ahalduntzea sustatzeko “ahalduntze-eskola” moduko eskaintza bat egon da, guztiz kontsolidatu ez dena. Ahalduntze eskolako ikastaroen eskaintza hau mugimendu feministarekin elkarlanean egin da.

Herri guztietan eskaini dira ikastaroak, nahiz eta gehienak Leitza izan. Parte hartzaile aldetik, adin-tarte ezberdinei eskaini zaie, batzuk institutuko gazteentzat izan dira, beste batzuk orokorrak, eta 45-55 urtekoentzat ere eskaini dira. Azken hauek bi urtean behin eskaini dira.

Talde gehienak bete egin dira 12-18 bitarteko partaide kopuruekin.




Gaiei dagokionez, osasunak, zaintzak, sendabelarrak, sexualitatea, zoru pelbikoa eta autodefentsa feminista bezalako gaiak landu dira.

Aipatzekoa da “Zure burua zainduz” tailerrean etxeko langile askok parte hartu zutela. Gauzak horrela, jatorri ezberdinetako emakumeekin lanketak egiteko aukera dagoela baloratzen da.

Jarraian dagoen taulan ikusten da ahalduntzerako ikastaroetan apustua egin dela azken urteetan. Hala ere, “Ahalduntze-Eskola” iraunkor bat eskaini ahal izateko baliabide falta da

lehen oztopoa. Izan ere, aurrekontuak asko baldintzatzen du egin daitekeen eskaintza. Jakina da “Ahalduntze-eskolaren” programa iraunkor batek eragina nabarmen areagotuko lukeela.

Esan bezala, aipatzekoa da antolatu diren ikastaro guztiak aurrera atera direla aitatasunari buruzko 2018an antolatu zen tailerra izan ezik.



Emakume baserritarren ahalduntzean ere inziditu nahi izan da urte hauetan, eta horretarako zenbait ekintza egin dira Cederna-Garalurrekin batera. Emakume baserritarrekin elkartu, haien aldarrikapenei lekua egin eta “urriaren 15ean” emakume baserritarren egunean ekimenak egin izan dira.

## 2.4 ONDORIOAK ETA IKASPENAK

Azken sei urteak emankorrak izan dira Berdintasun Politikei dagokionez. Hala ere, lan-saioetan eta elkarrizketetan ikusi da egindako esfortzua herritarrek ez dutela perzibitzen. Gauzak horrela, aurrera begira komunikazio lanak presentzia handia izan beharko du egindakoa balioan jartzeko. Iraupenari dagokionez, erdiko ebaluazio bat egiteko beharra sumatu da, azken urteetan egoerari egokitzeko beharra egon delako.

Bestetik, Berdintasun Plana, lanerako tresna moduan oso ambizioso zen, mankomunitateak zituen baliabide, egitura eta aukeretarako, agian, ambiziosoegia. Aurrera begira, Planaren helburuak doitu beharko dira, baita baliabideak ugaritu ere.

Baliabideei dagokionez, jardun erdiko berdintasun teknikariarekin garatu nahi izan da Plana. Lau udal eta hainbat mankomunitateren beharrei erantzutea oso zaila izan da, eta horregatik, aurrera begira jardun osoko berdintasun teknikariaren aldeko apustua egin da.

Aipatzekoa da Planak zituen helburu aurrerakoiak eta ikuspegi feminista. Lanerako tresna moduan, administrazioa barrutik eraldatzeko zehaztasun-maila errealitatera doitu beharko litzateke eta instituzio barruko koordinazioa eraginkorragoa egin.

Planaren garapen on baterako koordinazio egiturek garrantzi handia dute. Herri bakoitzean Berdintasun Batzordeak sortu izana ondo baloratzen da. Are gehiago, ezinbestekoak izan dira mugimendu feministarekin etengabeko elkarlana eduki ahal izateako. Hala ere, mankomunitate mailako koordinazio egitura eraginkor baten falta sumatu da, erakundeari edo instituzioari barneko eraldaketak egiten lagunduko duen egitura (genero-zeharkakotasunaren estrategian sakondu ahal izateko). Udal idazkariekin hartu-emana izateko espazioak ere faltan sumatu dira.

Oso ondo funtzionatu duen gakoa Gizarte Zerbitzuekin egon den etengabeko harremana da. Aurrera begira gakoak izango diren lan ildoetan ere Gizarte Zerbitzuekin batera lan egitea garrantzitsua izango da, nahiz eta helburua politika publiko gehiagorekin harremana izatea den.

Landutako gaiak dagokionez, aipatu dugu jada Planaren edukia oso aurrerakoa izan dela. Zaintzak erdigunean jartzea, indarkeria modu zabalean lantzea, ikusezinak diren kolektiboak ikusaraztea, emakume baserritarrak edo lesbianak bezala, eta abar.

Hurrengo plangintzan ere ikuspegi zabalarekin jokatzeko garrantzitsua izango da, mugimendu feminista entzun eta esparru berrietan ere lan egitea, adibidez, pedagogia feministak, ekofeminismoa edo genero-disidentziak bezalako gaiak landuz.


Azkenik, aipatzekoa da asmo berrien arabera, jardun osoko teknikaria egoteaz gain, lurralde berri bati erantzun beharko diola berdintasun sail berriak. Gauzak horrela, hasiera berri bati ondo egokitzeko, ezinbestekoa izango da Plangintza berria prozesu parte hartzaile baten bidez diseinatzea, herri guztien beharrera egokituko den plana izateko.

Laburbilduz, aurrera begira Plan berria diseinatzeko honakoak hartu beharko lirateke kontutan:

1. Egin nahi denaren eta egin daitekeenaren **oreka hobeto neurtzea**, eta beharrezko **baliabideak ezartzea**.
2. **Planaren ezaugarriak**: egitura sinplea eta errealista, baina aurrerakoia eta feminista. Sei urtekoa Plana izatea, baina bidean norabidea egokitzeko aukera izatea.
3. NABIk Tokiko entitateen berdintasun politiken ibilbidearen dokumentua (*Itinerario de las políticas locales para la igualdad*) oinarri hartuta diseinatzea plan berria. Itinerarioak dioen moduan, **genero-zeharkakotasunean indar gehiago jartzea**.
4. **Arlo gehiagorekin elkarlanak irekitzea**, baita udal arduradun gehiagorekin ere.
5. **Berdintasun politiketarako koordinazio egiturak egokitzea eta elkartzea**: teknikarien artean, zinegotzien artean, herrien artean. Arreta jarri instituzio barruko koordinazioan eta indarkeria matxista kasuen tokiko protokoloaren mahaia sortzean.
6. **Gizarte Zerbitzuekin eta mugimendu feministarekin** orain arte egon den elkarlana zaintzea. Indarkeriaren gaiak, ahalduntzea edo zaintza bezalako gaiak haiek gabe ezin baitira landu.
7. **Inguruko eskualdeekin elkarlan proiektu eta zerbitzuak abiatzea**: Bortziriak, Baztan, Malerreka bezalako eskualdeekin batera egitasmoak baratzeko baliabideak konpartitzea.
8. **Planaren jarraipenerako sistema hobetzea**. Planaren jarraipenerako adierazle sistema hobeto definitzea: modu sinple, neurgarri eta egingarrian. Plana garatu ahala baloratu ahal izateko.
9. **Herri bakoitzaren beharretara egokituko den Plan eta egitura berria sortzea aurrera begira**. Horretarako, prozesu parte hartzaile baten bidez diseinatzea Plangintzaldi berria, herri guztietako ordezkariekin batera, herritarrak, udal ordezkariak, tokiko administrazioko beste arloetako teknikari eta ordezkariekin eta udal idazkariekin batera.
10. Egindako lanak balioan jarri eta sozializatu. **Ikuspegi komunikatiboa** landu etengabe.

### 3. GENERO-BERDINTASUNARI BURUZKO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA

Ondorengo atalean 6 eremu aztertuko dira.



### 3.1 BIZTANLERIAREN INGURUKO DATU OROKORRAK

Nafarroako herriek hainbat erronka demografikori erantzun behar diete gaur egun. Ezagunenak biztanleriaren zahartzea eta herri txikien hustutzea dira. Bi fenomeno demografiko horiei berdintasunaren ikuspegitik begiratzea garrantzitsua da irtenbidea genero-ikuspegitik bilatu ahal izateko.

Azken urtean, Goizuetak izan ezik gainontzeko udalerriek biztanleriaren hazkunde negatiboa izan dute. Bestetik, Aranon izan ezik, gainontzeko herri guztietan jaiotzak gutxiago izan dira heriotza kopurua baino. Azkenik, 60 urtetik gorako populazioa ohikoa baino altuagoa da. Izan ere, herri txikietan pertsona heldu gehiago bizi ohi dira hiriguneetan baino.

ADIERAZLEAK	ARANO	ARESO	GOIZUETA	LEITZA
Biztanleria	110,0	267,0	708,0	3.016,0
Hazkunde-Tasa	-0,9	-1,1	2,0	-0,4
Jaiotza kopurua	1,0	0,0	2,0	23,0
Heriotza kopurua	1,0	3,0	6,0	35,0
60 urtetik gorako biztanleriaren portzentaia	34,2	31,5	34,7	30,3

Azken adierazle hau Nafarroan 26,6koa da. Hau da, Nafarroako 100 biztanletik 26,6 60 urtetik gorakoak diren bitartean Leitza, Arano, Areso eta Goizuetan 30etik gora dira, 34,7 Goizuetan.

Hainbat ikerketen arabera, emakumeak batzuek beste gizonak baino 5 urte gehiago bizi dira. Gauzak horrela, gure herrietako biztanleak helduagoak izatean, pentsa liteke emakume askoz gehiago daudela gizonak baino. Baina ez da horrela.

Populazioaren maskulinizazio tasari begiratu gero, zera ikusiko dugu: Arano, Areso, Goizuetan eta Leitza ohikoa baino gizon gehiago daudela. 100 zenbakiak emakume eta gizonen presentzia berdina esan nahi du, 100etik behera, emakumeen presentzia handiagoa da, eta 100etik gora gizonen presentzia handiagoa da.

NAFARROA	ARANO	ARESO	GOIZUETA	LEITZA
<b>98,0</b>	122,0	107,7	109,0	105,5

Goiko taulan ikusten da gure lau herrietan gizon gehiago daudela emakumeak baino. Gaindegiak<sup>1</sup> egindako ikerketa baten arabera, landa eremuetan emakumeen gabezia ez natural bat Fenomeno hau ikertu dutenek aipatzen dute emakumeen enplegurako aukera gehiago daudela hiriguneetan herri txikietan baino. Horrez gain, herrietan genero-rol eta estereotipoek pisu gehiago dutela identifikatu dute ikertzaileek. Azkenik, zaintzarako edo bestelako zerbitzuetarako irisgarritasuna errazagoa da hiriguneetan.


<sup>1</sup> Lurraldean andreen presentzia desorekatzen duen antolamendua, Gaindegia, 2020-02-04.



Horregatik, landa eremuko herrien biziberritze politikak lotuak joan behar dira berdintasuna sustatzeko politikekin, emakumeek gizonak baino lan aukerak eduki ahal izateko, eta estereotipoek emakumeen askatasunak mugatu ez ditzaten.

Biztanleriaren inguruko atal hau amaitu aurretik bigarren fenomenoaz hitz egin behar dugu: populazioaren zahartzeak dakartzan zaintza beharrak. Zaintza behar hauek batez ere emakumeek asetzen dituzte gehien bat senide edo familia moduan, muxu truk edo lan ordainduaren bidez (zaintzaren atalean sakonduko dugu datuetan). Baina aipatzekoa da zaintza behar hauek asetzeko irtenbide bat emakume atzerritarren eskulana dela.

Gauzak horrela, migratzailearen profila edo aurpegia Nafarroan asko aldatu da azken urteotan, eta beheko grafikoan ikusten den bezala, gaur egun jada emakumeak dira atzerritik lan egitera datozenak, gehienak zaintza lanetara.



**Iturria:**  
 Datuak. Observatorio realidad social de Navarra (2023).

Leitzaldeko migrazioari begiratuta, atzerrian jaiotako emakumeen %63a dira Ameriketara jaiotakoak, atzerrian jaiotako Leitzaldeko gizonak, ordea, % 32a dira<sup>2</sup> amerikarrak. Atal honen hasieran esan dugun moduan, nabarmena da erronka demografikoek berdintasunarekin duten harremana.

<sup>2</sup> Datuak. Observatorio realidad social de Navarra (2023).

### 3.2 GENERO-ARRAKALAK EKONOMIAN

Emakume eta gizonen berdintasuna aztertzeko ezinbesteko datuak izan ohi dira enplegurako aukerak eta dirusarrerak. Gauzak horrela, atal honetan jarduera-tasa, enplegu-tasa, langabezia-tasa eta soldata-arrakala aztertuko ditugu.

**Jarduera-tasak** 16 urtetik gorako biztanleen artean lan egiteko prestutasuna duten pertsonak neurtzen ditu. Jarduera-tasa barruan daude lanean dauden pertsonak hau da **enplegu-tasa**) eta lan bila daudenak (**langabezia-tasa**).

Ohikoa izatean da emakumeen jarduera-tasa gizonena baino baxuagoa izatea, lan egiteko adinean dauden emakume gehiago baitaude lan merkatutik kanpo. Nafarroan, gizon eta emakumeen jarduera-tasaren arteko aldea 9,3koa da. Leitza, Arano, Areso eta Goizuetan, ordea, aldea askoz txikiagoa da.

Are gehiago, Aranon emakume gehiago daude lan merkatuan gizonak baino. Gainontzeko herrietan 2,4 eta 3,7 arteko aldea dago emakume eta gizonen jarduera-tasen artean.

Datu hauek lotura zuzena dute biztanleriaren datuekin. Arano eta Goizuetako biztanleriaren % 34 inguruk 60 urtetik gora izanda, eta biztanleen gehiengoa gizonak izanda ondorioztatu daiteke lan merkatuan parte hartzen ez duten gizon heldu asko egoteak orekatzen duela balantza lan merkatuan emakume eta gizonen presentzia Nafarroan baino parekoagoa izateko.

JARDUERA TASA	NAFARROA	ARANO	ARESO	GOIZUETA	LEITZA
Gizonak	63,5	49,0	54,2	51,6	54,5
Emakumeak	54,2	52,6	51,0	48,0	52,0
ARRAKALA	9,3	-3,6	3,2	3,7	2,4

Enplegu-tasari dagokionez, aipatu berri dugun biztanleriaren profila dela eta, lanean dauden gizonen kopurua Nafarroan baino askoz txikiagoa da gure lau herrietan. Aranon emakume gehiago daude lanean gizonak baino (ia antzeko). Goizueta eta Leitza gizon gehiago daude lanean emakumeak baino, 5,5 eta 4,1 punturen aldearekin sexuen artean. Nafarroan, aldiz, aldea 9,3 puntukoa da. Hala ere, Areson aldea handia da, 10,4 puntukoa.

ENPLEGU TASA	NAFARROA	ARANO	ARESO	GOIZUETA	LEITZA
Gizonak	57,7	49,0	54,2	49,3	52,6
Emakumeak	48,4	50,0	43,9	43,9	48,5
ARRAKALA	9,3	-1,0	10,4	5,5	4,1

Langabeziari dagokionez, egun emakume gehiago daude langabezian gizonak baino, bai Nafarroa osoan, bai eta mankomunitateko lau herrietan ere.

Nabarmena da Aranon eta Areson ez dagoela gizonen langabeziarik, eta Goizuetan eta Leitza oso baxua dela. Emakumeen langabezia ohikoa da, nahiz eta Nafarroako datuekin alderatuta baxuagoa den.

LANGABEZI TASA	NAFARROA	ARANO	ARESO	GOIZUETA	LEITZA
Gizonak	9,2	0,0	0,0	4,4	3,5
Emakumeak	10,8	5,0	14,0	8,5	6,9
ARRAKALA	-1,7	-5,0	-14,0	-4,1	-3,4

Azkenik, soldata-arrakalaren datua jaso dugu Nas(tat)etik. Bertan ikusten da Leitza, Goizueta, Areso eta Arano herriek, batzaz beste, Nafarroako soldatak baina pixkaxeago altuagoak direla mankomunitatean: bai gizonenak, bai eta emakumeenak ere.

Hala ere, soldata arrakala Nafarroakoarekin alderatuta ia puntu eta erdi altuagoa da lau herrietan. Hau da, Nafarroan emakumeek gizonak baino % 18,7ko soldata baxuagoa dute urtean, mankomunitateko herrietan aldiz, emakumeen soldata gizonena baino % 20 baxuagoa da.

SOLDATA ARRAKALA	NAFARROA	ARANO	ARESO	GOIZUETA	LEITZA
Gizonak	32.005,6	33.357,5	33.357,5	33.357,5	33.336,1
Emakumeak	26.033,7	26.675,0	26.675,0	26.675,0	26.597,9
ARRAKALA	18,7	20,0	20,0	20,0	20,2

Gauzak horrela, gaur egun oraindik emakumeen pobrezia handiagoa da gizonena baino eskualdean. Aipatzekoa da Nafarroa mailan egindako azken ikerketen arabera, pentsio-arrakala % 37koa dela emakume eta gizonen artean.

Enplegurako aukerak, eta enpleguaren lan baldintzak ere, oraindik ez dira berdinak emakume eta gizonentzat. Horren erakusle da 2012an Sarrio Papeleran emakumeak kontratatze mugimendu feministak egin zuen kanpaina, ordu arte plantillaren ia osotasuna gizonak osatzen baitzuten eskualdeko enpresarik garrantzitsuenan.


Egun, administrazioa, irakaskuntza, zaintza lanak eta komertzio txikia dira emakumeen enplegu mota ohikoenak.

Lehen sektorean emakumeen presentzia eta baldintzak hobetzeko emakume baserritarrek urtero egin izan dira ekimenak, baita abeltzainen elkarteekin ere.

### 3.3 ZAINZARAKO AUKERAK ETA BEHARRAK

Zaintza beharrez hitz egiten denean bizitza duin bat izateko beharrezkoak diren zaintzei buruz ari gara. Zaintza lanei buruz hitz egitean, ordea, bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren lanei buruz hitz egiten dugu. Batetik, gaur egungo gizartearen zahartzeak ekarritako zaintza beharren gorakadak, eta bestetik, zaintza beharrak asetzeak emakumeentzat dakartzaten ondorio kaltegarriak ikusarazteak ekarri dute zaintza lanak agenda politiko eta sozialean txertatzea.


Gauzak horrela, epistemologia feministek **zaintza lanen hiru ezaugarri nagusiak** azpimarratu dituzte:



1. Zaintza lanak ia ehuneko ehunetan emakumeek asetzen dituzte.
2. Zaintza lanen % 86tik gora etxeetan, familiako emakumeek ase ohi dituztela. Beraz, behar gehienak musu truk asetzen dira.
3. Zaintza lanen gehiengoa ikusezina dela, ez da kontabilizatzen ez neurtzen, eta asko ekonomia ezkutuan ematen da. Horrek zaildu egiten du zaintza beharrak eta lanak balioan jarri eta asetzeko modu justuago bat bilatzea.

Era berean, ezinbestekoak dira zaintza lanak bizitza duin baterako, pertsona oro baita jaiotzen denetik hil arte dependientea maila batean nahiz bestean, eta denok behar dugu norbaiten laguntza.

Zaintza beharrak ugariak eta anitzak dira. Ekonomia feministatik hainbat sailkapen proposatzen dira. **Batetik, lan moten sailkapena dago.** Lehena; etxeko lanak, hau da, bizitzeko eremua eta oinarrizko beharrak asetzeko lanak, etxea garbitzea, arropa garbitzea, erosketak egitea, garbitasuna, besteak beste. Bigarrenik pertsonen zaintza; adingabeena, pertsona helduena, gaixoena, menpekotasun egoeran daudenena eta abar. Eta hirugarrena, pertsonen eta norberaren ongizatearen ardura hartzea; mediku zitak buruan izan, osasuna, elikadura planifikatu, urtebetetze edo ospakizunen ardura, babes psikologikoa eskaini. Azken honi ardura mentala ere deitu izan zaio.



**Bestetik, zaintza behar horiek asetzeko moduak** sailka daitezke. Aurrez esan bezala, modu erabiliena familia barruan asetzea izan ohi da. Bigarrenik, esku-lana kontratatuz zuzenean. Hirugarrenik, zerbitzu publikoen bidez (gehienak *co-pago* bidez). Eta azkenak, komunitatean edo babes taldeen bidez.

Banaketa hau, ordea, ez da bat ere parekidea. Familiaren bidez zaintza beharren % 86 inguru asetzen da. Beste % 7a ekonomia informalean kontratua da, eta geratzen den % 7a zerbitzu publikoen bidez, kontratu formalen bidez eta komunitate edo babes laguntzen bidez<sup>3</sup>, 2016ko Espainiako datuen arabera. Nafarroako etxeen % 13ak du zaintzarako laguntzaren bat kontratatua<sup>4</sup>.

LAGA mankomunitatetik lau herrientzako hainbat zaintza zerbitza daude antolatuta.

- 1- Etxez Etxeko laguntza zerbitzua:
- 2- Ortopedia zerbitzua
- 3- Jubilotekak
- 4- Zaintzaileak zainduz

Etxez etxeko zerbitzua 43 pertsonen erabiltzen dute gaur egun; 23 emakumek eta 20 gizonek. Denak dira Nafarrak. Zerbitzu publikoa da eta langile publikoen bidez ematen kudeatzen da. Sei etxez etxeko langile daude, guztiak emakumeak eta euskararen ezagutza dutenak.

Bestetik, zaintza lanetan aritzeko formakuntza eskaini ohi da mankomunitatean, zaintza lanetan dauden pertsonen bizi eta lan baldintzak hobetzeko eta zaintza zerbitzuak behar dituzten pertsonen emandako zerbitzua hobetzeko. 2024 urtean 26 pertsonen jaso dute formakuntza; 23 emakumek eta 3 gizonek. Egun, zaintza zerbitzuak emateko prest dauden langileen lan-poltsa du mankomunitateak, familiaren eta zaintza-langileen arteko harremanak errazteko. Lan poltsa horretan 42 pertsona daude; 39 emakume eta 3 gizon.

Bestetik, lau herrietan bestelako zerbitzuak ere badaude:

- 1- Haurreskolak Leitza eta Goizuetan.
- 2- Ludoteka komunitarioa gela polibalenteetan.
- 3- Zaintza-mahaia Leitza, herriko zaintza beharrak eta zaintzaileen beharrak aztertu eta egoerak hobetzeko proposamenak egin eta kudeatzea helburua duena.
- 4- Udaran haurrentzako aisialdi eskaintza (udalekuak).

---

<sup>3</sup> *Euskal demokrazia patriarkala*, Jule Goikoetxea, 2020 Txalaparta.

<sup>4</sup> *Zaintzen erradiografia Nafarroan*, INAI/NABI, 2020

### 3.4 EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA BIZITZA PUBLIKOAN

Zerbitzu batzuen erabilera neurtu egiten denean, askotan emakume eta gizonen erabilera zein den desagregatzen da Leitzan eta mankomunitatean. Horri esker, zerbitzuen erabilera feminizatua edo maskulinizatua den ikus daiteke eta berdintasuna sustatzeko neurriak proposatu. Adibidez, Leitzako kultur aretoaren erabilera sexuaren arabera nolakoa izan zen jasota dago memorian: ikusleen % 65a emakumeak dira eta % 35a gizonak.

Etxez etxeko zerbitzua edota gizarteratze zerbitzuen erabilera ere sexuaren arabera banatuta jasotzen da, eta nabarmena da emakumeek gehiago erabiltzen dituztela. Datu zehatzak ez izan arren, nabarmena da kiroldegian emakumeen presentzia handiagoa dela Leitzan gizonena baino. Aresoko gela polibalentean ez dago daturik, ez eta Goizuetan ere, baina erabilera feminizatuagoa dela esan liteke behaketen arabera. Goizuetan aretoaren erabilerari buruzko hausnarketa egin zen duela urte gutxi eta erabilera parekidea sustatzea izan zen irizpideetako bat.

Bestetik, aire zabalean banaka kirola egitea (korrika, bizikleta) ohikoagoa da gizonen artean. Emakumeek aire librean kirola egiteko taldeak sustatu dira azken urteetan, eta horrek presentzia orekatzea bultzatu du. Hala ere, oraindik asko geratzen da egiteko. Horietako ekimen asko udalen aldetik bultzatu dira, edo emakume taldeetatik. Adibidez, emakume txirrindulari gehiago daude lehen baino.

Leitzan gehiago nabaritzen da plazan edo frontoian gizonak direla nagusi. Areson eta Aranon, herri txikiak izanik eta biztanle gutxi izanik, sexuen arteko nahasketa gehiago ematen dira eta segregazio gutxiago.

Kultur eskaintzetan emakumeek gehiago hartzen dute parte, baina eskaintza oso handia ez denez herri handiagoetan baina banaketa gutxiago dago. Bertsolaritzan edo antzerkian berdin. Eskaintza urriagoa izanda, parte hartzaileak gizon eta emakumeak izan ohi dira, nahiz eta gizarte joerei jarraitu. Kultur eskaintzetan ere nabari da berdintasun gaiak lantzeko intentzionalitatea badagoela udalen aldetik. Esaterako, herri kirolen erakustaldietan emakume trontzalariak ekartzen dira sexuen presentzia parekidea bultzatzeko.

Gizarte mailan mugimendu feministak badu onarpena, baita mankomunitatetik sustatutako Berdintasun Politikek ere. Nahiz eta gizartean, oro har, genero-berdintasun gaien inguruko erresistentziak handitzen ari diren, momentuz eskualdean ez da sentitzen erresistentzia esanguratsurik. Hala ere, kontzientziazio lan handia dago egiteko oraindik.

### 3.5 EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA

Berdintasunari buruzko diagnostiko batean ezinbestekoa da indarkeria matxistei buruz hitz egitea, genero bereizkeriaren ondorio larrienetakoa baita.

Indarkeria matxista gisa ulertzen da emakumeen aurkako indarkeria, hau da, sexu-genero sistemaren logikan historikoki emakumeek pairatutako gutxiespenen eta diskriminazioen ondorioz eratorritako indarkeria. Zenbait erakundek, definizio horri gehitzen diote genero-sistemari erantzuten ez dioten gorputzen kontrako indarkeria ere.

Indarkeria mota hori eremu ezberdinetan ematean da, publikoan nahiz pribatuan; kalean, etxean, lanean, familia barruan, lankideen artean, aisialdian, besteak beste. Horrez gain, mota ezberdinetako indarkeria matxistak daude, esaterako, fisikoa, psikologikoa, sexuala edo urruntze aginduak apurtzea. Lau banaketa hauen arabera sailkatzen dira datuak Nafarroan.


Emakumeen aurkako indarkeria matxista bikotekideen arteko indarkeria gisa ikusi izan da azken urteetan Estatuan, baina egun, mugimendu feministaren lanketei esker eta egin diren lege aldaketak kontuan izanik ikuspegia asko zabaldu dela esan genezake. Emakume iza-teagatik emakumeen kontra baliatzen den indarkeria oro hartzen da egun indarkeria matxistatzat, neska txikien, neska nerabeen, adineko emakumeen eta emakume transen kontra egiten dena barne, baita ingurune hurbilari eragiten dioenean ere, emakumearen seme-alabak kasu.

Leitzaldean 2021ean hasi zen emakumeen aurkako indarkeria matxistaren kasuen jarraipenerako txostenak egiten. Orduz geroztik 21 kasu kudeatu dituzte Gizarte Zerbitzuek. Denak ez dira salatuak izan. Era berean, Gizarte Zerbitzuek kudeatu gabeko kasuak badaude, zuzenean polizian egindako salaketak edo Osasunbidearen bidez identifikatutakoak. Esaterako, 2023an bakarrik Nafarroako iparraldean 112 salaketa jaso ziren (Baztan, Bortzirriak, Malerreka, Leitzaldea, Ultzama, Mendialdea).

Beheko taulan ikus daiteke 2021 urtetik 2023ra Nafarroa mailan salaketa hazi egin direla. 2023an 2.091 salaketa egin ziren emakumeen kontrako indarkeriarekin lotuta.



Gráfico 1: Denuncias por violencia contra las mujeres por años.



Fuente: Bases de datos denuncias policiales en Navarra-INAI

Salaketarako kanal erabiliena polizia forala da egun NABlren datuek diotenaren arabera. Hiru datu esanguratsu azpimarratu daitezke NABlren Nafarroako emakumeen indarkeria matxistari buruzko 2023ko datuei erreparatuz:

- 1- Salaketen % 75a bikotekideen edo bikotekide ohiek eragindako indarkeriak izan ohi direla.
- 2- Adin tarte guztietako emakumeek egin dituztela salaketak, eta beraz adin guztietan ematen dela, baina 60 urtetik gorako emakumeen salaketa oso oso gutxi jasotzen direla.
- 3- Sexu indarkeriaren biktimen % 72a 29 urtetik beherako emakumeak direla, eta 17 urtetik beherako 142 emakumeren salaketa dagoela jasota urte bakarrean.

Leitzaldera itzulita, hauek dira urtez urte Gizarte Zerbitzuek kudeatutako kasuak:

	2021	2022	2023	2024
<i>Leitza</i>	5	2	5	1
<i>Areso</i>	0	0	0	0
<i>Goizueta</i>	2	0	1	4
<i>Arano</i>	0	0	0	1
<b>GUZTIRA</b>	<b>7</b>	<b>2</b>	<b>6</b>	<b>6</b>

Biktimetako bat, gutxienez, adin txikikoa izan da. Horrez gain, artatutako emakumeen erdia baino gehiago ama ziren, baina seme-alabak ez dira estatistika hauetan sartu.

Indarkeria motei dagokionez, gehien bat fisikoak detektatu dira, baina psikologiko eta sexualak ere egon dira. Guztiak ez dira salatuak izan, baina gehienetan egin dira deribazioak eta kasuen kudeaketak.

### 3.6 GENERO-IKUSPEGIA LAGAKO TOKIKO ADMINISTRAZIOAN

Atal hau betetzeko ezinbestekoa izan da udal-idazkarien eta udal ordezkarien laguntza. Banan-banakako bilerak egin dira udal bakoitzaren errealitatea ezagutzeko. Lau eremutan banatu dugu analisia, 17/2019 Nafarroako Berdintasunerako Foru Legean ezartzen diren zereginetan oinarrituta. Lehena, administrazioak emakumeak eta gizonak ikustea, eta beraz, emakumeak ikusarazteko eta entzuteko neurriak sartzen dira bertan. Bigarrena, udaletako giza baliabideen kudeaketa genero-ikuspegitik egitea. Hirugarrenik, administrazioaren prozesura arruntetan genero ikuspegia txertatzea. Azken eremuan berdintasun politikak sustatzeko baldintza politikoen inguruan hausnartu nahi izan da.

	<b>EREMUAK: Zer egin da?</b>
<p><b>1.</b> <b>EMAKUMEAK</b> <b>BISIBILIZATZEA</b> <b>– IKUSTEA ETA</b> <b>ENTZUTEA</b></p>	<p><b>Datuak sexuaren arabera desagregatuak jasotzea (19. Artikulua, 17/2019 Foru Legea)</b></p> <p>Foru-arauak dio administrazio publikoek kudeatzen dituzuen datuak sexuaren arabera jaso behar direla, ondoren genero-arrakalak identifikatu, berdintasuna sustatzeko neurri zehatzak definitu ahal izateko.</p> <p>Oro har, Leitzako herrian datuak hala jasotzen dira, era berezian: bai kulturean, bai kirolean, bai gizarte politketan, partaidetza prozesuetan eta abar. Aranon, Areson eta Goizuetan datu gutxi jasotzen dira, baina ikuspegi politikotik emakumeen presentzian arreta jartzen dutela aitortzen dute udal ordezkariak. Datuen jasoketan eta genero-arrakalak identifikatzean pauso gehiago eman daitezke hala ere.</p>
	<p><b>Komunikazio ez sexista eta barneratzailea egitea (21.artikulua, 17/2019 Foru Legea)</b></p> <p>Oro har, euskaraz lan egiteko ohitura dagoenez, maskulino orokorraren oztopoa gaindituta ohi dute. Hala ere, administrazioaren hainbat dokumentuetan oraindik badago maskulino generikoa. Aurrera begirako ideien artean, hizkuntza-sexistarik gabeko gaztelerazko ereduak sortzea proposatu da, demagun, plegu ereduak, hitzarmen ereduak, akta ereduak, eta abar. Horrez gain, irizpide argiak zabaltzea udal ordezkari eta langileen artean.</p>

<h1 style="font-size: 2em; margin: 0;">2.</h1> <p style="font-weight: bold; margin: 0;">UDALEKO GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETAN GENERO</p>	<p>Irudiei dagokionez, teknikariak saiatzen dira kartel eta esku-orrietan emakume eta gizonen presentzia egotea une oro, beti lortzen ez den arren.</p>		
	<p><b>Emakumeen parte hartzea udal politketan (IV. Tituluan I. Kapitulua, 17/2019 Foru Legea):</b></p> <p>Ez dago emakumeen partaidetzarako organo ofizialik LAGA mankomunitatean ez eta mankomunitatea osatzen dute herrietan ere. Baina guztietan dago espazio informalen bat berdintasunari buruzko gaiak lantzeko. Are gehiago, berdintasun zinegotziek mugimendu feministarekin harreman naturala dute. Badira herritarrek eta zinegotziek osatutako Berdintasun Batzordeak Leitza, Areson eta Goizuetan.</p> <p>Ildo hau hobetzeko, lau herrietako zinegotzien arteko koordinaziorako espazio egonkor bat egotea proposatu da, urtean bitan elkartzeko bada ere. Momentuz telefono bidezko txat iraunkor bat dute koordinaziorako.</p>		
<h1 style="font-size: 2em; margin: 0;">2.</h1> <p style="font-weight: bold; margin: 0;">UDALEKO GIZA BALIABIDEEN KUDEAKETAN GENERO</p>	<p><b>Udaleko langileek beren jardueren bidez berdintasuna sustatzeko gaitzea (20.artikulua, 17/2019 Foro Legea)</b></p> <p>Udal egitura oso txikiak dira lau herri hauenak. Politika publikoen kudeaketa udal ordezkarien bidez egiten da gehien bat Areso, Arano eta Goizuetan, udal-idazkarien laguntzarekin.</p> <p>Ordezkarri politiko guztiei zuzendutako prestakuntza antolatzen da legealdi bakoitzaren hasieran, sei bat ordukoa.</p>		
	<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 15%; text-align: center;">2020</td> <td style="text-align: center;"> <p><b>BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA</b></p> <p>LEITZA-ARESO Iraupena: 6 ordu Parte-hartzaileak: - 4 emakume 3 gizon</p> <p>GOIZUETA-ARANO Iraupena: 6 ordu Parte-hartzaileak: - 2 emakume 2 gizon</p> </td> </tr> </table>	2020	<p><b>BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA</b></p> <p>LEITZA-ARESO Iraupena: 6 ordu Parte-hartzaileak: - 4 emakume 3 gizon</p> <p>GOIZUETA-ARANO Iraupena: 6 ordu Parte-hartzaileak: - 2 emakume 2 gizon</p>
	2020	<p><b>BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA</b></p> <p>LEITZA-ARESO Iraupena: 6 ordu Parte-hartzaileak: - 4 emakume 3 gizon</p> <p>GOIZUETA-ARANO Iraupena: 6 ordu Parte-hartzaileak: - 2 emakume 2 gizon</p>	
<table border="1" style="width: 100%; border-collapse: collapse;"> <tr> <td style="width: 15%; text-align: center;">2022</td> <td style="text-align: center;"> <p><b>GENERO ZEHARKAKOTASUNA TXERTATUZ LEITZALDEAN</b></p> <p>LEITZA-ARESO Iraupena: 4 ordu Parte-hartzaileak: - 4 emakume 2 gizon (denak Leitzakoak)</p> </td> </tr> </table>	2022	<p><b>GENERO ZEHARKAKOTASUNA TXERTATUZ LEITZALDEAN</b></p> <p>LEITZA-ARESO Iraupena: 4 ordu Parte-hartzaileak: - 4 emakume 2 gizon (denak Leitzakoak)</p>	
2022	<p><b>GENERO ZEHARKAKOTASUNA TXERTATUZ LEITZALDEAN</b></p> <p>LEITZA-ARESO Iraupena: 4 ordu Parte-hartzaileak: - 4 emakume 2 gizon (denak Leitzakoak)</p>		

<b>IKUSPEGIA TXERTATZEA</b>		<p>GOIZUETA-ARANO                      Iraupena: 4 ordu                      Parte-hartzaileak: - 2 emakume 2 gizon (denak Goizuetakoak)  <b>GOIZUETAKO PROTOKOLOA EGITEKO FORMAKUNTZA SAIOA</b>                      Iraupena: 3 ordu                      Parte-hartzaileak: 5 emakume 2 gizon (hautetsi eta eragileak)</p>
	2023	<p><b>BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA</b>                      LEITZA                      Iraupena: 8 ordu                      Parte-hartzaileak: 4 emakume 3 gizon                      ARESO                      Iraupena: 6 ordu                      Parte-hartzaileak: 2 emakume 3 gizon                      GOIZUETA                      Iraupena: 8 ordu                      Parte-hartzaileak: 6 emakume 2 gizon                      ARANO                      Iraupena: 4 ordu                      Parte-hartzaileak: 2 emakume 1 gizon</p>
	<p>Egun dauden hiru udal-idazkarietatik batek berdintasun gaietan prestakuntza jaso du, zehazki berdintasun klausulen ingurukoa. Mankomunitateko gizarte langile eta hezitzaileek NABIn bidez jaso izan dituzte berdintasun gaiekin lotutako trebakuntzak. Orokorrean, lan teknikoa egiten duten langileek II. Berdintasun Planaren diseinu fasean zehar berdintasunari buruzko prestakuntza orokorra jaso zuten. Azkenik, Berdintasun zerbitzutik antolatutako 4 ikastaro egin dira azken 4 urteetan langileei zuzendua:</p>	
2020	<p><b>INDARKERIAREN INGURUKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA</b> (Tokiko koordinazio protokoloaren diseinuan GIZARTE ZERBITZUEN langileei zuzendua)</p>	

	<p>Iraupena: 6 ordu                  Parte-hartzaileak: 6 emakume (gizonik ez zerbitzuan)</p>
2022	<p><b>BERDINTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO TREBAKUNTZA</b>                  Iraupena: 8 ordu                  Parte-hartzaileak: 10 emakume 3 gizon</p>
2022	<p><b>GENERO ZEHARKAKOTASUNA TXERTATUZ LEITZALDEAN</b>                  Iraupena: 8 ordu                  Parte-hartzaileak: 5 emakume 1 gizon</p>
2023	<p><b>UDALEKUETAKO BEGIRALEENTZAKO BERDINTASUN TREBAKUNTZA                  LEITZA</b>                  Iraupena: 2:30 ordu                  Parte-hartzaileak: 12 neska 4 mutil</p>
<p>Hala ere, langileen joan etorria dela eta, ikastaroak jaso dituzten zenbait langile jada ez daude eta berriek ez dute prestakuntzarik jaso. Aipatu da, aurrera begira, III. Berdintasun Planaren diseinuan prestakuntza-prozesu txiki bat egiteko aukera dagoela. Bestetik, gai zehatzagoak lantzeko, Baztan, Bortziriak eta Malerrekarekin batera prestakuntzak antola daitezkeela.</p>	
<p><b>Emakume eta gizonen ordezkaritza orekatua (16.artikulua 17/2019 Foru Legea)</b></p> <p>Organo kolegiatuak, gehien bat udal ordezkariak osatzen dituzte, baina askotan bi pertsonako batzordea izan ohi dira, herrien tamainagatik. Gauzak horrela, udalbatzen osaerak baldintzatzen dute ordezkaritza parekidea egotea. Gehien</p>	

batean hala izatean da. Une honetan Leitza eta Aranon gizon gehiago daude emakumeak baino udalbatzan. Areson eta Goizuetan emakume gehiago daude udal ordezkari moduan. Ikusi azpiko taulan bilakaera.

	LEITZA			ARANO			GOIZUETA			ARESO		
	Em	Giz	GUZTIRA	Em	Giz	GUZTIRA	Em	Giz	GUZTIRA	Em	Giz	GUZTIRA
2023-2027	3	8	11	1	4	5	6	2	8	5	1	6
2019-2023	5	6	11	1	4	5	3	4	7	2	5	7

Herri txikietan ez da erraza izaten udal taldeak osatzea, eta are gutxiago emakumeak topatzea. Udal ordezkariak diote hauteskunde guztietan kontuan izan ohi duten faktorea dela ordezkariak orekatuarena.

**Giza baliabideen kudeaketan kontuan hartu beharrekoak (24.artikulu, 17/2019 Foru Legea)**

Artikulu honetan 10 puntu jasotzen dira giza baliabideen politikak kontuan hartu behar dutenaren inguruan. Aranak langile bakarra dago, zerbitzu anitzekoa. Goizuetak, ordea, idazkariak gain, bi brigadako langile eta bi administrari. Aresok ere antzeko egitura du. Guztietan handiena Leitza da, edo mankomunitatea bera.

Arlo honetan, aipatzekoa da lanpostu publikoen deialdietan saiatu izan direla berdintasuna sustatzen deialdien oinarrien bidez, kale garbiketan (Goizuetan) adibidez.

Hurrengo hiru urteei begira lanpostu deialdi ugari egongo dira Leitza: langileen arduraduna, kultur teknikaria, administraria eta administrari laguntzailea, tailerrekoa era brigada arduraduna.

<b>3.</b> <b>POLITIKA</b> <b>BAKOITZAREN</b> <b>JARDUERAN</b> <b>GENERO</b> <b>IKUSPEGIA</b> <b>TXERTATZEA</b>	<b>Berdintasuna sustatzeko klausulak dirulaguntza eta kontratazio publikoan (17 eta 18 artikulua, 17/2019 Foru Legea)</b> <p>Berdintasun gaietan prestakuntza espezifikoa izatea baloratu izan da Leitza, esaterako arkitekto bulego bat kontratazeko. Orokorrean lizitazio gutxi egiten dira, eta gehienak hiri-mantenu, bideen edo basoaren ustiapenen ingurukoak dira.</p> <p>Exekuzio baldintzetan datuak sexuaren arabera desagregatuak jasotzea eta hizkuntzaren erabilera ez sexista egitea jartzen da kasu batzuetan. Zailtasun handiena klausulen jarraipena egitean dago.</p>
	<b>Ordenantzetan eta hirigintzari lotutako planetan genero eraginaren aurretzeko ebaluaketa (22 artikulua, 17/2019 Foru Legea)</b> <p>Genero eraginaren aurretzeko ebaluaketak egiteko zailtasunak daude oraindik, batetik, lan teknikoak egiteko pertsonak falta dela eta, eta txosten hauek egiteko ezagutza falta dela eta. Udal-ordenantza gutxi egiten direnez gutxitan dago lan hau egiteko beharra.</p> <p>Hirigintza-arauetan, legez egin behar da eta gehienetan arkitekto lana egiten duten aholkularitzen esku egoten da.</p> <p>Aurrera begira, Leitza Hirigintzako Plan Orokorra diseinatzeko prozesuan genero ikuspegia txertatzea ezinbestekoa izango dela aipatu dute.</p>
	<b>Arlo bakoitzak bere eremuko jardueretan emakume eta gizonen berdintasuna sustatzea era trasbertsalean (13.artikulua, 17/2019 Foru Legea)</b> <p>Txostenaren gainontzeko ataletan jaso da udal arlo ezberdinek genero ikuspegia txertatu eta berdintasun plana garatzeko egindako lanak. Oro har, badago kontzientzia emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko arlo ezberdinetatik, bai eta herri eragileetatik ere, nahiz eta hobetzekoak egon.</p>



**4.**  
**BALDINTZA**  
**EGOKIAK**

**Ordezkarri politikoaren konpromisoa emakume eta gizonen berdintasunari dagokionez**

Berdintasun gaietan konpromisoa dagoela sumatzen da Goizuetan, Areso, Arano eta Leitzako udaletan. Horren erakusle dira berdintasun teknikariaren jarduna igotzeko egindako apustua eta mugimendu feministarekin dagoen etengabeko elkarlana.

Elkarlan horren erakusle izan zen 2024ko festetako txupinazoa emakume baserritarrek bota izana.

Beste adierazle bat da urtez urte udalbatzan onartzen diren adierazpen instituzionalak berdintasunaren aldekoak, edota aurreko urteetako greba feministekin udal gobernuen izan duten inplikazioa.

Azkenik, aipatzekoa da Leitzako udalak egiten duen esfortzu ekonomikoa jaietan Puntu Moreak eta salaketetarako telefonoa egoteko.

**Berdintasun politikak koordinatzeko egiturak**

Aurrez aipatu bezala, badira berdintasun politikak koordinatzeko batzordeak Areson, Leitzan eta Goizuetan. Bertan, herritarrak (mugimendu feminista), berdintasun zinegotzia eta berdintasun teknikaria elkartu dira orain arte.

Berriki, berdintasun zinegotzien arteko txata sortu da telefono bidez harreman iraunkorra izateko.

Mankomunitate barruko arloen artean berdintasun gaiak koordinatzeko saiakerak egin dira, eta ondo funtzionatu dute, nahiz eta ez den lortu harreman egonkor bat mantentzea. Gehien bat Gizarte Zerbitzuak, Kirola eta Kulturarekin egon da harremana.

Indarkeria matxista kasuak kudeatzeko koordinazio markoa ere martxan jarri da, eta egoki funtzionatu du.

Faltan sumatu da udalen arteko harremana egotea maila tekniko edo administratiboago batean. II. Plana ezin izan da Udal bakoitzaren errealitatera jaitsi. Horregatik, aurrera begira udalen arteko koordinazio marko bat egotea garrantzitsutzat jo da, urtean bitan elkartzeko bada ere.

## 4. AURRERA BEGIRAKO ERRONKAK

Txosten honen helburua LAGA mankomunitatearen bidez Leitza, Areso, Goizueta eta Aranon bultzatu dituen berdintasun politikak ebaluatzea izan da.

Horretarako, "Kokapena" izendatu dugun lehen atalean eskualdeko mugimendu feministaren azken urteetako ibilbidearen errebaso motz bat jaso dugu txostenean, baita herritarrek berdintasun gaien inguruan dituzten zenbait iritzi ere. Atal hau emakume talde, berdintasun zinegotzi eta mugimendu feministaren laguntzarekin egin dugu.

Bigarren atalean LAGako mankomunitateko II. Berdintasun Plana ebaluatu dugu Berdintasun teknikariaren laguntzarekin. 2018-2023 bitarteko iraupena zuen II. Berdintasun Planak. Aurrerakoa baina anbiziozuegia izan dela ikusi da mankomunitateak zituen baliabideetarako. Hala ere, herena baino gehiago atera ahal izan da aurrera, jardun erdiko berdintasun teknikariaren bultzadarekin. Emankorrenak emakumeen ahalduntzean eta indarkeria matxistaren aurkako politiketan emandako pausoak izan dira. II. Planaren ebaluaziotik 10 ondorio jaso dira txosten honetan, 2.4 atalean aurkituko dituzunak.

Azkenik, hirugarren atalean, egungo egoeraren azterketa egin dugu: zein da berdintasun gaien egoera LAGako mankomunitatean? Horretarako, batez ere datuen analisisian oinarritu gara: Nastat-ekin ateratako datuak, udal zerbitzuen memorietatik ateratakoak eta udal-idazkari eta ordezkari politikoei egindako elkarrizketetatik jasoak. Sei atal aztertu dira txostenaren hirugarren atalean: *biztanleriaren inguruko datuak, genero-arrakalak ekonomian, zaintzarako aukerak eta beharrak, emakume era gizonen presentzia bizitza publikoan, emakumeen aurkako indarkeria matxista eta genero-ikuspegia tokiko administrazioan.*

Aipatutako hiru atalak kontuan izanik, txostenetik jasotako ondorioak aurrera begirako 11 erronketan laburtu ditugu.

### 1. ADINEKOENTZAKO ONGIZATEA:

Lau herrietan 60 urtetik gorako populazioa oso handia da (populazioaren % 30tik gora, Nafarroan % 26,6), eta beraz, zaintza beharrak eta pertsonen autonomiaren lanketa erronka garrantzitsua izango da eskualdean ondorengo Plan Estrategikoetan.

### 2. GENERO-ARAUEN PRESORIK GABEKO BIZI PROIEKTUAK:

Bestetik, herrien hustutzeak genero-alborapena duela ikusi dugu. Herrietatik hirietarako migrazio gehiago egiten dute emakumeek gizonen baino (Ikus *"Lurraldean andreen presentzia desorekatzen duen antolamendua"* Gaindegia, 2020). Gauzak horrela, emakumeentzat, gazteentzat, genero-disidenteentzat, familia eta haurrentzat erosoak eta abegikorrek diren herriak sustatzea garrantzitsua izango da.

### **3. EMAKUME MIGRATUEKIN ALIANTZAK ERAIKI:**

Demografiari lotutako beste gai bat migrazioa da. Nafarroan eta Leitzaldean migratzailearen profila emakume latinoamerikarrarena da, zaintza lanak egiteko etorri dena. Lan hauek prekaritate maila oso altuekin daude lotuta. Baina badira bestelako lanak eta egoerak dituzten emakume migratuak ere. Gauzak horrela, Leitzan, Areson, Aranon eta Goizuetan bizi diren emakume migratuekin lanketa bereziak egiteko beharra nabarmendu da diagnostikoan.

### **4. EKONOMIA FEMINISTA BATERAKO EZKUTUAN DAGOENA BALIAON JARRI:**

Ekonomiaren arloan, emakumeek bizi duten pobrezia-maila eta lan-merkatuan duten posizioa gizonena baina okerragoa den arren, esan daiteke, batz bestean, Nafarroan dagoen egoera baina hobea dagoela Leitzan, Goizuetan, Areso eta Aranon. Hala ere, lan-merkatutik kanpoko lan-ezkutuetan, eta lan-informaletan, arreta jartzea ezinbestekoa izango da, genero bereizkerien iturburu nagusietako bat baitira. Esaterako, baserriko lanetan, etxeko lanetan, zaintza lanetan, lan boluntario edo militanteetan, eta abar.

### **5. ZAINTZAK BIZITZAREN ERDIGUNEAN:**

Zaintza gaiari erreparatuta, txosteneko atal guztietan zehar nabarmendu da lehentasunezko gaia dela eskualdearentzat. Mugimendu feministaren aldarrikapenetatik hasi (2023ko greba feminista), elkarrizketatutako 38 pertsonen iritzietan oinarrituta, eta eskualdean dauden zerbitzuak aztertuta, gaian sakontzeko beharra dagoela nabarmena da. Hala ere, aipatu beharra dago azken urteetan eskualdean emandako aurrerapausoak herritarren ekimenei esker: jubilotekak, haurreskolak publiko eta komunitarioak, etxez etxeko laguntza zerbitzu publikoa eta lan-poltsa soziala, gizarteratze programa, emakume zainzaileentzako yoga taldea... Sari bat ere jaso du mankomunitateak zaintza gaian duen proiektua dela eta. Hala ere, beharrak hor dirau eta aurrera begirako berdintasun politiken markoan zutabe garrantzitsua izan beharko luke zaintzaren gaiak.

### **6. EMAKUME ETA GIZONEN PRESENTZIA PAREKIDEA:**

Nabarmentzeko beste arlo bat emakumeen eta gizonen presentzia parekidea eta genero-rol eta estereotipoak hausteko egindako lanketak dira. Hasteko, herri-eragileek, ordezkari politikoek eta LAGako administrazioko langileek emakume eta gizonen presentzia orekatzeko hautua egin dute hainbat egitasmoetan: festetan, kirol erakustaldietan, kultur eskaintzak, enplegu-publikorako deialdietan, eta abar. Batzuetan, presentzia hori neurtzera iritsi dira datuetan (Leitzako kultur aretoaren erabilera: %65 emakumeek erabili dute eta gizonek % 35a). Hala ere, emakume eta gizonen presentzia parekideak, egun, arlo askotan erronka izaten jarraitzen du.

## **7. HERRITARREN INPLIKAZIOA BERDINTASUN GAIETAN:**

Emakume eta gizonen berdintasuna sustatzeko beharraz herritarrak kontzientziatzea, gizonen inplikazioa areagotzea eta haur, nerabe eta gazteekin lanketa zehatzak egitea izan da elkarrizketetan nabarmendu den beste erronka bat. Izan ere, Nafarroako Berdintasunerako Plan Estrategikoak lan-ildo nagusien artean gai honi heltzeko erronka jartzen du mahai gainean. Etorkizuneko erronka izateak ez du esan nahi azken urteetan lanketarik egin ez denik: eskoletako familiekin, institutuko gazteekin eta gazte asanbladarekin lanketak egin izan dira, besteak beste. Baina aurrera lanean jarraitzeko arloa izango da hau ere.

## **8. EMAKUMEEN AHALDUNTZEA:**

Emakumeen ahalduntzerako tailer eta ikastaroen eskaintzak gora egin du urtez urte, eta eskaini diren ikastaro guztiak bete izan dira. Adin-tarte eta profil ezberdinetako emakumeentzat eskaini izan dira tailerrak eta oso balorazio ona jaso dute. 2023an 7 ikastaro atera ziren aurrera. Aurrera begirako erronken artean kokatzen da eskaintza egonkortu eta eskualde mailako ahalduntze eskola bat sortzea. Bestetik, emakumeen ahalduntze pertsonaletik kolektibora pasatzea da ildo honetan kokatzen den beste erronka bat, berdintasunaren aldeko aktibismo feminista sustatzea. Zentzu horretan, udalen eta mugimendu feministaren arteko elkarlanak ezinbestekoa izan dira eta izango dira aurrera begira.

## **9. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO HERRIAK:**

Indarkeria matxistaren gaia, ezinbestean izango da aurrera begirako erronka. Datuek erakusten dute Leitza, Areson, Aranon eta Goizuetan kasuak ematen direla urtero. Lan ildo hau izan da II. Planean zehar gehien landu dena. Hala ere, aurrera begirako erronken artean prebentzioan, detekzioan, kasuak artatzean eta jazarritako pertsonen erreparazioan sakontzeko beharra nabarmendu da. Aipatzekoa da, eskualde txikia izanda, estrategiakoa dela gai honetan aliantzak egitea inguruko eskualdeekin, eta adibidez, trebakuntzak edota NABlren zerbitzuak Nafarroara hurbiltzeko eskaera batera egiteko moduko lanketak direla.

## **10. HERRI TXIKIEI EGOKITUTAKO EGITURAK ETA PLANA**

Azken aurreko erronka izango da, zalantzarik gabe, Berdintasun Politikak kudeatzeko sistema berriarekin asmatzea. Horretarako gakoak, herri txikien errealitatera egokitutako politikak egotea dela nabarmendu dute elkarrizketetan, baita mugimendu feministarekin eta herritarrekin etengabeko elkarlanean aritzea. Berdintasun teknikari bat egongo da jardun osoan 2026tik aurrera, 6 udalerrirentzat. Erronka handia izango da herrietara hurbiltzeaz gain udal egiturak bustitzera iristea. Horretarako, udaletako teknikari eta idazkarien arteko koordinazio gune baten beharra dagoela nabarmendu da diagnostikoan zehar, baina berdintasun zinegotzien arteko etengabeko komunikazioa eta koordinazioa ere.

## **11. GENERO IKUSPEGIA TXERTATU UDAL eta MANKOMUNITATEKO JARDUERA GUZTIETAN**

Gutxien landu den lan-ildoan, genero ikuspegia prozedura administratiboetan txertatzea izan da. Gauzak horrela, azken hau ere erronka izango da aurrera begira. Udal langileen eta ordezkari politikoen prestakuntza berdintasun gaietan; datu eta informazioaren ustiaketa bidez genero-arrakalak identifikatzea eta berdintasuna sustatzeko neurriak proposatzea arlo bakoitzean; komunikazio berdinezalea sustatzea; kontratazio publikoaren eta enplegu publikoaren bidez berdintasuna sustatzea besteak beste.

## I. ERANSKINA: II. Planeko ekintzen banakako ebaluazio azkarra

JARDUERA		OHARRA
Genero-berdintasunerako udal arloa sortzearen bidean Alkatetzaren barruan eztabaida eta egituraketa prozesua hastea, aurrerago, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko udal jarduketak handik bultza eta koordina daitezzen eta giza baliabideak eta aurrekontukoak bertatik kontutan hartuz.	Eginda	Hausnarketa horri esker, Berdintasuna beste leku batean kokatuko da 2025etik aurrera, eta lanaldi osora pasako da.
Arloetako zuzendaritzetako ordezkariak osatua, Arlo guztiak koordinatzeko mahai tekniko eratzea, handik, Toki Entitatean genero-mainstreaminga osatzeko, udal estrategia sustatzeko, baita urteko lan-programak eta berdintasun plana bultzatuko duena ere.	Erdizka	Koordinazio mahai teknikoa egin da, baina batez ere arlo sozialekin. Udal jardueran genero-mainstreaminga koordinatzeko udal idazkariekin beste egitura bat beharko litzateke.
Komunikazio tresna berritzaile, originalen medioz eta pertsona orori helduko zaiena, Berdintasun Planerako zabaltzerako estrategia berrien diseinua, baita berdintasun arloko beste jarduketentzako ere.	Erdizka	Gutxi egin da. 2018an eta 2019an egin zen baina ez dira urteroko jarduerak bisibilizatu. Jardueren difusioa gehiago sistematizatu behar da.
Toki Entitatean genero-mainstreamingaren ezaritzeak daukan inpaktua eta horren edukiak lantzeko, Politikarientzako formakuntza plana jarraitua.	Erdizka	Ez da plan jarraiturik egin, baina saio batzuk egin dira: 2 orduko 4 saio. Legealdi bakoitzean eta herri bakoitzean.
Toki Entitatean genero-mainstreamingaren ezaritzeak daukan inpaktua eta horren edukiak lantzeko, Teknikarientzako formakuntza plana jarraitua.	Erdizka	Teknikariei formazio batzuk eskaini zaizkie, baina ez era jarraituan. Indarkeria matxistari buruz eta Kontratazio publikoan berdintasun klausulak txertatzeari buruz, besteak beste.
Datuen bilketarako Informazio sistema eta prozesuen egokitzea sexuen arabera sailkatzeko. Kasu honetan sexu identitate anitzak ikustarazteko aukerak eman bilketa metodoetan.	ez da hasi	Ez da sistematikoki egiten. Zenbait arlok bai. Gizarte Zerbitzuetan eta Kirolean bai.
Sexua aldagaitzat hartuko da Toki Entitatean dauden edo hark osatzen dituen azterlan, ikerketa, txosten eta informazio estatistikoetan, konpromiso hori harraziz modernizazio administratiboan udal kudeaketa prozesuaz arduratzen diren informazioaren teknologiako enpresak, genero ikuspegitik plana, programa edo proiektua egokia den aztertu ahal izateko ezinbesteko baldintza baita.	ez da hasi	Ez da berariaz landu, baina Gizarte Zerbitzuetan aurrera eraman dute.
Udal araudietan baita udalean garrantzi berezia duten plan, programa eta proiektuetan ere, generoak duen eragina aztertzeko txostenak burutzeko prozeduren diseinua, NFBik Nafarroako Gobernu txostenak prestatzeko darabilen prozedura kontutan hartuz.	ez da hasi	

Generoak daukan eraginari buruzko txostenak prestatzea udal araudia onetsi baino lehen, baita udalean garrantzi berezia duten plan, programa eta proiektuak onetsi aurretik ere	ez da hasi	
Berariazko aurrekontu bat izatea Udaletxeko aurrekontu osoaren %7tik beherakoa izango ez dena berdintasunaren arloko udal jarduketak sustatzeko	egokিতuta	Mankomunitatearen aurrekontuaren %7 da. Baina udalena...ez.
Mankomunitatearen aurrekontuen genero inpaktuaren inguruko informea egin, baita kontu-sail bat/batzuena ere.	ez da hasi	Inposiblea da...
Urteko aurrekontuetan genero ikuspegia txertatu ahal izateko neurri/zehaztapen batzuen sorrera.	ez da hasi	
Tokiko langileen banaketa sexuaren arabera informen baten burutze eta difusioa. Bertan, alde bategatik, kontratu mota, lan jardunaldia, mailak, soldatak eta osagarriak, langilearen promozio prozesuak, eta abar aztertuko dira. Bestalde, generoaren arabera soldaten arteko arrakala, segregazio horizontala eta bertikala, besteen artean.	egokিতuta	LAGAko administrazioa konplexua da eta neurria ez zegoen bere errealitateara egokিতuta.
Hobetu beharreko arloen identifikazioa aipatutako informeen arabera jarduketak martxan jar daitezzen, genero diskriminazio eta desberdintasunak prebenitu eta zuzentzeko asmoz	egokিতuta	
Langileak sustatzeko prozesuetan emakumeen eta gizonen partaidetza orekatua bultzatzea, baita genero rolen apurketa baimenduko dituen dinamikak sortzea, hau da, langileen artean ere, ardurak eta parte hartzea aldatzea.	egokিতuta	
Protokolo bat osatzea sexu jazarpenak eta/edo sexuagatiko jazarpenei aurrea hartzeko eta/edo aurre egiteko Toki Entitatean	ez da hasi	Aurrekontuak eskatu dira ekintza abiatzeko, baina ez da hasi.
Araudia, prozedurak eta baliabideak prestatzea Toki Entitatean hizkuntza eta irudi ez sexistak erabiltzeko.	Eginda	Gida bat sortu zen eta irrati saio bat egin zen komunikazio ez sexistari buruz
Herritarrentzako inprimaki, eredu eta bestelako agiri administratiboen hizkuntza moldatzea sexista izan ez dadin	ez da hasi	Udalekin zuzenean lan egiteko zailtasuna egon delako.
Formakuntza plangintza udal langileekin hizkuntza ez sexista eta inklusiboaren inguruan bai euskaraz eta bai gazteleraz ere.	ez da hasi	Ikastaro hau zehazki ez da egin.
Mankomunitatearen kontratazio, diru-laguntzen eta konbenioetan burututako genero analisiaren informeen lanketan	egokিতuta	Berdintasun klausulen inguruko trebakuntza eman zitzaien udal idazkariei, Berdintasun teknikarien saretik antolatuta.
Mankomunitatearen kontratu, diru-laguntzak eta konbenioetan genero klausurak gehitzeko prozesuaren lanketa egitea.	egokিতuta	



Formazio jarraitua kontratuen kudeaketan, diru-laguntzen eta konbenioen arduradun den talde teknikoarekin genero ikuspegia txertatzeko.	egokitu-tuta	
Mankomunitatearen kontratu, diru-laguntzak eta konbenioetan genero klausulak txertatzea.	egokitu-tuta	
Presentzia orekatuari buruzko irizpideak ezartzea lan batzorde iraunkorretan, sariak emateko epaimahaietan, kultur eta/edo arte funtsak eskuratzeko gaitutako organoetan, etab	ez da hasi	Kontutan hartzen da.
Ekintza positiborako neurriak sustatzea emakumeen ordezkariak apala duten udal alorretan emakume gehiago egon dadin	Eginda	Saiatu dira alkatetzarako emakumeak bilatu dira. Lanketa politikoa egin da. Emakume politikarien ahalduzko programan parte hartu dute zinegotzi batzuk (INAI)
Genero-ikuspegitik eskualdearen informazio eguneratua izateko bitartekoak sustatzea, eskualdearen garapen sozioekonomikoa eta ingurumenaren iraunkortasuna helburu duten beste erakunde batzuekin elkarlanean (tokiko garapenerako agentziak, merkataritza ganberak, partzuergoak, enpresarien elkar-teak, tokiko enplegu agentziak, etab.) Ingurumenaren iraunkortasunak esan nahi du modu eraginkor eta zentzuzko batean administratzea ingurumeneko ondasun eta zerbitzuak.	Eginda	CEDERNAK behatokia jarri zuen martxan, eta Berdintasun teknikariak parte hartu du
Eskualdeko funtsezko agenteak aholkatzea genero-ikuspegia txertatzeko bai plan sektorialetan bai udal-terriko edo eskualdeko proiektuetan	Eginda	Adibidez, Leitzako Inguruarte parkean genero ikuspegia txertatzeko lanketa egin zen. Guraso elkarteari ere eman zaio aholkularitza.
Egoera ahulagoetan dauden emakumeen diskriminazioak eta oztopoak identifikatu, kontutan hartu eta beharrak informe batean jasotzea geroago, mankomunitatearen zerbitzuak hobetzeko.	Eginda	"Gizarteratze programan" parte hartzen duten emakumeen egoerak aztertu dira eta berariaz, emakumeentzako proiektu zehatzak egin dira. "Zure burua zainduz" espazioa.
Eskualdearen garapen estrategiaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunari eragiten dioten plan eta proiektuen diseinuan parte hartzeko, emakumeen eta beraien erakundearen parte hartzea bultzatu eta bideratzea sentsibilizazio eta formakuntza prozesuaren bidez.	ez da hasi	Ez da berariaz emakumeen parte hartzea sustatu eskualdeko plan estrategikoetan.
Eskualdeko zerbitzuak emakumeek eta gizonek dituzten behar eta egoera ezberdinei nola egokitzen diren aztertu eta hauek kudeatzea (garraioa, osasuna, prestakuntza eta enplegua, laguntzak eta diru-laguntzak, IKTen erabilera, etab.)	ez da hasi	Emagin zerbitzua herrira ekartzeko lanketa egin zen. Goizuetan kiroldegian emakumeen parte hartzea sustatzeko lanketa egin zen.

<p>Genero-indarkeriari buruz indarrean dagoen araudia eta Emakumeen aurako indarkeriari aurrea hartzean eta aurreneurriak eraginkortasunez koordinatzeko dagoen erakundeen arteko akordioa aintzat hartuta, Tokiko koordinazio prozedura zehaztuko duen berariazko protokoloa diseinatu, abiarazi, jarraitu, egokitu eta ebaluatzea, baita indarkeria horri aurre egin, hauteman, jardun eta bideratuko duena ere.</p>	<p>Eginda</p>	<p>Protokoloa egin da.</p>
<p>Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko berariazko protokoloari jarraipena egiteko eta ebaluatzeko talde teknikoa sortzeko bultzada ematea.</p>	<p>ez da hasi</p>	<p>Mahaia ez da sortu</p>
<p>Genero indarkerian parte hartzen duten guztiekin koordinazio lanak egitea, kasuei hobeto heltzeko informazioa eta aholkularitza errazteko.</p>	<p>Eginda</p>	<p>Kasuen kudeaketak eta koordinazioa hobetzeko prozedura zehaztu da. Kasuen inguruko zalantzak egon direnean Berdintasunetik aholkularitza eskaini da.</p>
<p>Udalbatza berriei zuzenduriko prestakuntza ekintzak diseinatzea emakumeen aurako indarkeria mota ezberdinei buruz, zer eragin duten Toki Entitatean eta zer baliabide dauden auziari heltzeko</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Ordezkariei zuzendutako berariazko trebakuntzarik ez da egin indarkeria gaietan. Goizetan erantzun publikoaren protokoloa egitean ordezkariek trebakuntza jaso zuten.</p>
<p>Mintegi edo jardunaldi berariazkoak prestatzea, edo haietan parte hartzea, NFBIrekin eta beste toki entitate edo erakunderekin batera, emakumeen aurako indarkeriaren arloan udalerrria eta/edo eskualdea ukitzen duten errealitate zehatzei buruz.</p>	<p>Eginda</p>	<p>Martxoak 8an "sasiak eta haziak" mahai ingurua antolatu zen indarkeria matxistaz bizi-tzaren esparru ezberdinetan. Koordinazio protokoloa egin zen eta herri mailan aurkezpena egin zen. Horrekin batera Mankomunitatean indarkeriak daukan eraginaren diagnostikoa ere aurkeztu zen.</p>
<p>Genero-indarkeria kasuak artatu eta emakumeak babesteko baliabideen mapa egokitzea Toki Entitatearen ezaugarriari eta eskualdean haien berri zabaltea, behar diren eta egokienak diren komunikazio bideak eta hizkuntzak erabiliz.</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Esku-orria egina dago, zabaltea falta da. Hala ere, INAIren esku-orriak zabaltzen dira, sexu indarkeriaren eta emakumeen aurako indarkeriari buruzkoak. Konfinamenduan ere, zerbitzuak ezagutarazteko zabalpena egin zen. Puntu morea ere jarri ohi da, uda aldean.</p>

<p>Prestakuntza eta informazioa eman ezagutarazteko zein diren Nafarroako Gobernuak, Gizarte Zerbitzuei buruzko Foru Legeari jarraituz, bermatzen dituen prestazioak, dauden jarduketako protokoloak, Emakumeei laguntza juridikoa emateko Zerbitzua</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Lan saio bat egin zen eskualdeko Osasun zentroarekin, Guardia Zibilarekin, Foruzainekin eta Gizarte Zerbitzuekin Protokoloa egiteko prozesuaren barruan.</p>
<p>ATENPRO genero-indarkeriako biktimendako telelaguntzaren berri ematea, hartara batzeko modua kudeatzea eta segimendua egitea</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Informazioa zabaldu da, gizarte langileek eta hezitzaileek eskaerak tramitatu dituzte, baina segimendu nahikorik ez zaio egiten.</p>
<p>Mankomunitatearen emakumeei Aholkularitza juridikoa eskaintzea eta indarkeria, egoera familiarra edota egoera pertsonaletan sortutako genero diskriminazioa jasaten duten emakumeei</p>	<p>ez da hasi</p>	<p>Bortziriak, Baztan, Ultzama eta Leitzaaldearen artean aholkularitza juridikorako zerbitzu bat kontratatzeko aukera aztertzen ari dira.</p>
<p>Baliabideak eta zerbitzuak iristen ez direnean, edo egokitzen ez zaizkionean eskualdeko emakumeen errealitateari, Administrazio eskudunari jakinaraztea.</p>	<p>egokিতuta</p>	<p>Ez da kasua eman</p>
<p>Sentsibilizazio kanpaina berariazkoei atxikitzea eta halako kanpainak antolatzea emakumeen eskubiak sortu eta sendotzeko garrantzi bereziko egunak datozenean (martxoaren 8a, azaroaren 25a, urriaren 15a, irailaren 23a...), eskualdeko erakundeekin, eta eragile sozial eta ekonomikoekin elkarlanean</p>	<p>Eginda</p>	<p>Urriak 15, Azaroak 25, martxoak 8, ekainak 28.</p>
<p>Aisialdi eta jai giroetan sentsibilizazio lanketa burutzea indarkeria sexista eta beste indarkeria moten prebentzioan, identifikazioan eta salaketan.</p>	<p>Eginda</p>	<p>Puntu Moreak jaietan, bideoak sortu dira, materialak, eta salaketetarako telefonoa.</p>
<p>Herritarrak genero-indarkeriaren arloan sentsibilizatzeko eta arazoari aurrea hartzeko lagungarria den material pedagogikoa diseinatu eta zabaltzea</p>	<p>Eginda</p>	<p>Bideoak, materialak, esku-moreen pinak herrian banatzea. Tabernetarako kartelak.</p>
<p>Autodefentsa feminista eta ahalduentzaren inguruko programa bat aurrera eramatea, kronologia zehaztua eramango duena eta urteko planteamendu sendotua izango duena ere.</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Autodefentsa feminista tailerrak eman dira, baina luzera begirako planteamendurik ez da egon. 45-55 urtekoentzako ahalduentze tailerrak bi urtean behin.</p>

Irakasle, ikasle eta familiei zuzendutako emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko formazio eta sentsibilizazio saioak burutzea, mankomunitatearen lehen eta bigarren hezkuntzari zuzendutako hezkidetzaren programa baten barruan.	Erdizka	Ekintza ugari egin dira ikastetxeekin batera, baina ez Hezkidetzaren programa integral baten barruan.
Urteko memoria emakumeen kontrako indarkeriaren inguruan burututako sentsibilizazio ekintza guztiak, jarraipena eta hobetu beharreko alderdiak jasoko dituenak.	ez da hasi	Ez da memoriarik egin.
Urteko informea salaketan, egoera desberdinen eta ekintzen ezaugarriak eta eboluzioa genero indarkeriaren inguruan.	Eginda	Gizarte Zerbitzuek jasotzen dituzte datuak eta Berdintasun Zerbitzuak egiten du memoria.
Baliabide edo zerbitzu berriak diseinatzea, betiere bada daudenak osatu edo hobetzeko	ez da hasi	
Kontziliazioaren aldeko Tokiko Itunaren ildoan, iraunkortasuna izango duen eztabaida taldeak sortu ituna sinatu dutenekin edota herritarrekin, zainketen, erantzunkidetasunaren eta bateratzearen arloan hausnarketa prozesua martxan jartzeko eta egoerari aurre egiteko herrialde bakoitzak bere estrategiak eraiki ditzan eta beraiek hurbiltzeko.	Erdizka	Zaintzen aldeko itun berria sinatu da.
Sentsibilizazio-jarduketak egitea; genero-berdintasuna, ekarriko duen balio-aldaketa eragiteko, Zaintzaren Etika balio sozialtzat jotzeko eta eginkizunak erantzunkidetasunez bateratzeko.	Eginda	Zaintzen inguruko diagnostiko txiki bat egin zen eta ondorioak zabaldu ziren.
Zaintza eta erantzunkidetasuna ebaluatzeko jarduketan diseinua burutzea.	egokিতuta	
Sentsibilizazio/Formakuntza lan espezifikoak burutzea aitatasun ereduaren inguruan.	Eginda	Eskaini zen gizonentzako eta aitentzako tailerra baina ez zen atera. Haur eta familia programako jardueretan aitei dei berezia egiten zaie, baina ez du asko funtzionatu.
Denboraren inguruko molde desberdinen garapen eta ezartzeak.	egokিতuta	
Pertsona zaintzaileentzako, gehiengoa emakumezkoa dena, formazio ekintza jarraituen diseinua burutzea, identifikatutako beharren arabera.	ez da hasi	Enplegu duinagoetarako aukerak izateko formakuntzarik ez da eskaini, baina auto-zaintzarako bat.
Familiei arnasa eta babesgunea emateko baliabideak eskaini, eguneko zentroaren zerbitzuak hobetuz eta beste espazioak sortuz (jubiloteka, adibidez).	Eginda	Jubiloteka badago, udalekuak eskaintzen dira udan. Jarduera batzuetan haurtzaindegi zerbitzua egoten da.
Zerbitzuen estaldura eta ordutegien malgutasuna handitu daitezela sustatzea	ez da hasi	Zerbitzuak mantendu dira, baina ez areagotu.

Jendearen mugikortasuna eta autonomia errazten duten baliabideak edo zerbitzuak diseinatu eta abiaraztea, leku publikoak, hiri-garraioa eta hiri artekoa, hirigintza-plangintza eta etxebizitza modu berrietan antolatuz.	ez da hasi	
Udal kultura eta jarduna Zaintzaren Etiketik abiatu eta eraberritzeko jarduketak	Eginda	Greba feministaren kontestuan udal gobernuak eta herritarrak inplikatu ziren.
Udalerriko emakumeen autoestimua, autonomia eta ahalduntzea garatzeko jarduketak	Eginda	Emakumeen ahalduntzerako jarduerak egin dira.
Tokiko edo mankomunatatutako ahalduntze-eskola bat sortzea; ahalduntze-ikastaro eta -lantegiak; emakumeen prestakuntza eta enplegu arloko Udalarren edozein lan-programari emakumeen ahalduntzea gehitzea berariazko modulu eta zeharkako ardatz gisa	Erdizka	Ikastaro asko antolatu dira. Baina Ahalduntzea sendotzeko, eskaintza iraunkorrago, zabalagoa behar da, espazio propioarekin.
Udalerriko emakumeak, haien ekarpenak eta jakituria ezagutaraztea eta ikusgarri egitea, baita bestelako emakumeak ere, erreferentetzat har daitezkeenak eta ahalduntze prozesu pertsonalak indartzen lagundu dezaketenak. Hala nola, emakume baserritarrak.	Eginda	Urriak 15aren kontestuan eta beste uneetan ere lanketak egin dira. Haien aldarrikapenei lekua eman zaie. Abeltzainen elkarte baten estatutuak errebisatu dira genero-ikuspegia txertatzeko.
Emakumeak ikusgarri egitea kale eta eraikinen izenetan, baita tokiko ikonografian ere; udalerriko emakumeen historia biltzea; erakusketa, lehiaketa eta sari berariazkoak; ikastaroak, etab	Erdizka	Mugimendu feministaren bidez egin zen. Emakumeen izenak jarri zizkieten Leitzako kaleei aldarrikapen moduan. Goizuetan ere 2018an saiakerak egin dira. Baina ez da aldaketa ofizialik egin.
Informazioa sortzea udalerriko edo eskualdeko emakumeak jabetu daitezzen zer-nolako eragina duten beraiengan genero-desberdintasun eta genero-bazterkeriek.	Eginda	Galdetegi bat egin zen Leitza eta Aresoko emakumeek bizitako indarkerien inguruan mugimendu feministarekin batera. Emaitzak zabaldu ziren.
Emakumeek nork bere burua zain dezaten sustatzea, nork bere adinari, premiei eta interesei begira (ariketa, elikadura, jokamolde arriskugarriak gutxitzea, etab.).	Eginda	Ahalduntzerako tailer ezberdinen bidez egin da: Sendabelarrak, zure burua zainduz, zoru pelbikoa, ...
Emakumeen egoera eta beharrak identifikatzeko diagnostiko parte hartzailea burutzea, urteko ahalduntze ekintzen planifikazioa honen arabera egiteko.	ez da hasi	
Emakumeen ahalduntze kolektibo eta sozialerako bide berriak eraikitzearen hausnarketa eta sakontzea egitea.	ez da hasi	

<p>Emakumeen jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren arloan: enpleguaren kalitatea hobetzearen bidean eta mankomunitatearen emakumeen enplegu txertatzerako proiektuak bultzatzea eta martxan jartzea beste erakundeekin elkarlanean. Proiektu horiek kolektiboen aniztasuna eta egoera desberdinen beharrei erantzungo die. Bestalde, emakumeen ekintzailatza jarduerari laguntza eta seguritatea eskaintzea, izan ere, baliabideetan sarbide gutxiago daukate edota, familia dependentzia handiagoa.</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Cedernarekin lanketak egin dira eta Gizarteratze programan ere aholkularitza eman da. Bestetik, NABIk duen etxeko-langileentzako aholkularitza juridikoa ere zabaldu da komunikabideen eta esku-orrien bidez.</p>
<p>Mugikortasunari dagozkionak: Egungo desoreka modu jasangarri batean hobetzeko proposamenak diseinatu eta garatzea, hau da, emakumeek gizonen baino eskuragaitzago izatea autoa eta garraio publikoa erabiltzeko premia handiagoa izatea.</p>	<p>ez da hasi</p>	
<p>Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriei dagozkienak: Generoko arrakala digitala txikitzeko asmoz egindako proiektuak, hots, IKTak (ordenagailua eta Internet) eskura ez dutenen eta erabiltzen ez dakitenen, batez ere emakumeen, eta hala-koak izan eta erabiltzen dituztenen artean sortutako desorekak gutxitzeko helburu dutenak</p>	<p>ez da hasi</p>	
<p>Kultura, aisia eta kirol arloei dagokienez: Hausnarketa eta eztabaida gune bat sortu beti ere genero ikuspegia kontutan hartuz, jaien eredia eta jaien ekintzen inguruko aldaketa prozesu bat bultzatuz.</p>	<p>Eginda</p>	<p>Festei begirako kontratazioetan genero ikuspegia txertatzen saiatu da. Kulturatik kontuan hartzen da genero-ikuspegia. Barraketan eta beste zenbait kontratuetan berdintasun klausulak txertatzen dira.</p>
<p>Kultura, aisia eta kirol arloei dagokienez: Emakumeen ekarpenak urteko programetan gehitzea interesa esparru desberdinetan ikustarazteko eta erreferenteak sortzeko (emakume kirolariak, adibidez)</p>	<p>Eginda</p>	<p>Mahai inguruak antolatzean eta abar, zonaldeko emakume erreferenteak ekartzen saiatzen gara. LAGAKo emakume kirolarien lorpenak sare sozialetatik zabaltzen dira.</p>
<p>Kultura, aisia eta kirol arloei dagokienez: Emakume entrenatzaile, begirale eta beste lanbideetarako kontratazioak egitea.</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Kontratazioetan eragin ez arren, entrenatzaile eta begiraleentzako hezkidetzak saioak antolatzen dira UEMArekin batera.</p>
<p>Kultura, aisia eta kirol arloei dagokienez: Kultura, kirola eta aisialdi programazioa zonaldeko emakumeen espektatiba eta beharrei egokitu.</p>	<p>Erdizka</p>	<p>Planifikazioan saiakera egiten da, baina beti ez da lortzen.</p>
<p>Gazteria: Dauden gazte espazioak erabili Ikuspegi feminista landu eta egunerokotasunean txertatzeko formakuntza/tailler desberdinak egitea, beti ere, gazteriaren nahiei egokituz, parte hartzailea izanda eta bizipenetan oinarrituta.</p>	<p>ez da hasi</p>	<p>Ez dago espazio erreferenterik lanketak egiteko gazteekin. Eskola barrutik zerbait egiten da, baina Gaztetxearekin ez.</p>
<p>Beharrezkoak diren bideak eta egiturak sortu emakume elkarte edota elkarte feministek Tokiko politikaren diseinuan eta jarraipenean parte hartzeko, batez ere emakumeen eskubideen arloekin zer ikusirik daukatenetan.</p>	<p>Eginda</p>	<p>Berdintasun Batzordea dago herri guztietan.</p>

Elkarte feminista edota emakumeen elkarteekin lan bateratua egin formakuntza eta aholkularitza lanak burutuz emakume eta gizonen berdintasunarekin loturiko ekintzak burutzeko.	Eginda	Elkarlana badago, eta ekintza bateratuak egin izan dira.
Zonaldeko emakumeen topaketa espazioak sortu eta bertan, ezagutze eta hurbiltze dinamikak proposatu puntu komunak eta sareak sortzeko.	Eginda	Martxoaren 8an bazkariak antolatu izan dira mugimendu feministarekin batera.
Parte hartze esparruak sortu genero arrakala gailentzen diren egituretan (sindikatuak, enpresak, elkarte kulturalak edota kirolekoak...)	ez da hasi	
Jendartean emakumei eta gizoni esleitutako rol eta estereotipo ezberdinak indargabetzeko jarduketak	Eginda	Gabonetan jostailu ez-sexisten kanpaina egiten da urtero prebentzio zerbitzua eta berdintasun zerbitzuaren artean.
Mankomunitatearen Hezkuntza Komunitate guztiari zuzendua, Hezkidetza programa diseinatu, martxan jarri eta finkatu.	egokituta	Ez dagokigu. Hala ere, ikasturte hasieran eskolarekin bilerak egiten dira urtero.
Maskulinitatearen barruan sartzen diren pribilegioen inguruko hausnarketa burutzeko, identifikatzeko, rol eta estereotipo sexistak deuseztatzeko eta beste eredu batzuen lanketa bideratuko dituzten formakuntza/sentsibilizazio jarduerak.	ez da hasi	

